

ttipi-ttapa



INAUTERIAK gehigarria / 17



PENSIO DUINAK ALDARRIKATUZ

Pentsio sistemarekin kritiko, duela urtebete inguru protestan hasi ziren pentsiodunak. Haserre segitzen dute oraindik eta eskualdeko pentsiodunengan ere ezinegona sumatzen da. / 10

JAVIER BERGASA | NOTICIAS DE NAVARRA

SINADURAK

 MONIKA AGIRRE CASCALLANA / 3	 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
 AIALA ZUBIETA BERTIZ / 4	 ESTEBE APEZTEIXE MURUA / 4



ZOKKETA / 56

«Rockaren sortzaileek egungo egoera nola bizi duten erakutsi nahi izan dugu dokumentalarekin»

Esker 1000 dokumentalaren sortze-eta zuzendaritza-prozesuan ibili da Patxi Irigoierratzuarra. / 8



Larunbat honetan hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa / 22

Adur Etxezarreta aresoar eskiatzailea Alpinoko Munduko Kopako biran / 35

Eguneko albisteak **ERRAN.EUS** gunean



erran.eus

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA
ESKELAK eta HILBERRIAK %10eko deskontua TTIPI TXARTELArekin



erran.eus
SAILKATUAK

1 - Animaliak	2 - Etxebizitzak
101 - Oparitzeko	201 - Saldu
102 - Saldu	202 - Errentan emateko
103 - Denak	203 - Errentan hartzeko
104 - Erosi	204 - Etxe konpartituak
105 - Bertzelakoak	205 - Erosi

> Iritzia

Jakin-nahitik morbora	Eguraldia eta informazioa	Non daude euskal irakurleak?
Paizka Rekalde	Mikel Taberna	Maitane Maritorea

Sarrerak salgai www.bertsosarrerak.eus atarian

www.bertsozale.eus



Nafarroako Bertsolari Txapelketa
2019



URDAZUBI

Otsailak 10. 17:30ean, Kultur Etxean



Julio Soto Ezkurdia, Saioa Alkaiza Guallar, Iker Gorosterrazu Elizagoien, Iban Garro Alzuri, Irati Majuelo Itoiz eta Sahats Aleman Sadaba

Gai-jartzailea: Ainhua Larretxea Agirre

IRURITA

Otsailak 16. 17:30ean, Gizarte Bilgunean



Xabi Maia Etxeberria, Xabier Terreros Gartzia, Joanes Illarregi Marzol, Patxi Castillo Graziarena, Xabat Illarregi Marzol eta Endika Legarra Nuin

Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi "Zian"





NIRE TXANDA

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

Isiltasunaren solasa

«Zer dio isiltzen denak isiltzen denean?» kantatzen digu Laboak *Gure hitzak* abestian. Galdera pixko bat aldatuko dut: zer aditzen du isiltzen denak isiltzen denean? Erantzunak aisa ematen du; ixo eta aditu:

Tik-tak, tik-tak, zirt-zart, klik, klik, brrr, brrr... Horiek dira isiltasunaren soinuak gure etxe barranean: erlojuaren pendulua, sugarren txinparta biziak, ordenagailuko teklak eta mugikorra.

Karrak, karrak, ttur-ttur, po-po... Bertze horiek leihoaren bertzaldean aditzen direnak: bele baten karranka, hurbileko baserri bateko solasaldia eta Ibardingo errepidetik goiti joaki den autoa.

Orain, ixo berriz, eta aditu, baina barne-barnean aditu: hortxe dugu, isiltzen garenean erraten duguna da. Hori, ordea, ez da hain aise antzematen, garrantzitsua bezain bazter utzia baita, aunitzetan, entzungor egina. Baina gure baitako nahi isilak dira, urte hasi berrirako helburuen zerrendan gehitu beharrekoak.

**«IXO ETA ADITU,
BARNEAN ADITU:
HORI DA ISILTZEAN
ERRATEN DUGUNA»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Zer jan, hura izan

Elikaduraren garrantziaz jakitun gara aspaldian (batez ere Eguberriak pasatutakoan edo uda hurbiltzerakoan, bi nikitik bikinira pasa nahi dugunean). Galdetu bertzela Londresko Tamesis ibaian bizi diren angirei. Hiperaktiboak omen dira. Zergatik? Urak dakarren kokaina maila altuagatik! Araztegiek ez dute lana ongi egiten, baina hiritarren pixatik dator droga.

NABARMENTZEKOAK



LAXARO
ERREGERENA
JOALDUNA



ANGEL
MARIEZKURRENA
ERATSUNDARRA

Aurtengo inauterietan 50 urte bete ditu joaldun gisa Laxaro Erregerena Ariztegi iturendarrak. 15 urterekin atera zen lehenbiziko aldiz, eta mende erdi beranduago hortxe segitzen du ttunturrua soinean.

Nafarroako Gobernuak interes sozialekotzat jo du euskal kantuen jaialdien antolatzaile den Angel Mariezkurrenaren proiektua eta Kultur Mezenasgoaren Legean aurreikusitako zerga-pizgarriez profita dezake.

ATZERA BEGIRA



2009-02-05 · TTIPI-TTAPA · 487 zk.

Xabi Torres Elizondoko alkate berria

Duela hamar urte, Xabi Torres Elizondoko alkate berria elkarrizketatu zuten TTIPI-TTAPAKO lankideek. «Elizondo herri bat dela» ikusarazteko asmoa azaldu zuen eta «egitekoak denonak» direla. Bere hitzetan, «Elizondoko gizartea sakabaturatuz joan da, eta konpromiso kolektiboak atzundu egin dira. Gure erronka hori puskatzea izanen da. Materialki dauden hutsuneei ere erantzunen diegu». Hortaz aparte, urte hartan hasi ziren inauteriak asteburuan ospatzen: «asteartekin egin ohi dena galduz zihoala ikusita, gazte talde zabal batek aspaldi paratu zuen gaia mahai gainean, eta ortzirale eta larunbatera pasatzea erabaki da. Arazoa Elizondokoa da eta beraz, astearteak tokiko besta izaten segituko du Baztanen».

ttipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Aranbxa Iturralde,
Aranbxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarte

2019ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	38€
Leitza	26€
Hego Euskal Herria	44€
Ipar Euskal Herria, Europa	83€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako
Gobernua

mecna

BAZTANGO
EUSKARA

BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

Malerrekako
Mankomunitatea

CC BY SA



KOLABORAZIOAK

AIALA ZUBIETA BERTIZ

Barne bidaia

Negua, iluna, grisa, euria, tristura, desatsegina, barrua, pijama, sua, hibernazioa, hotza, bakardadea, tximinia usaina, bakea, ttikia, etxeko goxotasuna, hutsala... kontzeptu horiek aipatu dira lagunartean neguari buruz solas egiterakoan.

Urtero bezala, negua ailegatu da, hori baita bizi zikloa, oraingoz aldatu ezin dena, eta barrurako bidaia egiteko momentua sumatu dut gorputzean. Aspaldidanik galdua du gure gizarteak sen hori; naturarekin orekan eta berekin batera garatzea ideia hutsala dirudi, eta horrela, gehienok, gure bizitzako bidaia kanpora begira, kontsumismoan, kapitalismoan, heteropatriarkatuan, bertzeen zer erranetan eta sare sozialetan oinarrituz egiten dugu.

Natura jakituna dela jakina da. Natura neguan gelditu egiten da, barrura sartzen da. Animalia anitzek, hibernatu egiten dute; gordelekua neguko loaldirako prestatuta denbora pasatzen uzten dute, baimena ematen diote

**«NORBERAK
BERETZAKO
DENBORA HARTZEA
EZINBERTZEKO DA»**

gorputzari «deus» ez egiteko, edo hobeki erranda, bizirauteko minimoa egiteko. Tarte horretan mantsotu egiten dute bizi erritmoa. Zuhaitzek ere gisakoa egiten dute, beren barne jariakinak sustraietara

eramaten dituzte eta lotan geratzen dira, lurtean zutik biziraunez, udaberriarekin batera kanporako edertasuna agertzeko.

Gure kultura, ordea, pertsonok naturari bizkarra eman eta eskua luzatu diegu gizakiak jarritako arau eta sinesmenei. Hagitz barneratu dugu «deus» ez egitea denbora galtzea dela. Denbora, gizartean hain preziatua den denbora! Ez diogu geure gorputzari egonean egoteko baimenik ematen, ez ditugu geure bizi erritmoak eta beharrak errespetatzen eta beti aktibo eta prest egon behar dugu zerbait egin eta ongi sentitzeko. Norberak beretzako denbora hartzea ezinbertzekoa da, nahiz eta ez den gugandik gizarteak espero duena, ezta guk geuk gugandik espero duguna ere.

Marcela Serrano idazle txiletarrak bere eleberrietako batean neguari buruzko irakurketa hau egiten du: «*El invierno no pretende consolar pero, a fin de cuentas, yo siento que consuela porque una se hace un ovillo sobre sí misma y se protege y observa y reflexiona y creo que solo en esta estación se puede pensar de verdad*» («Neguak ez du kontsolatzea nahi, baina, azken finean nik kontsolatu egiten duela sentitzen dut. Izan ere, norbera bere baitan uzkuertzen da eta babestu egiten du bere burua, eta behatu egiten du, eta hausnartu egiten du, eta soilik urtaro honetan pentsa daitekeela benetan uste dut»).

Beraz, negua hain gris eta ilun ikusten den momentu horietan, garaia baliatu eta barnera sartu, sentitu, jakin barnean duzun horrekin egoten, eta ahal izanez gero gozatu zeure barne bidaiaz.



ESTEBE APEZETXE MURUA

... eta bertzeak ere bai!

Gabonetan Euskal Herrian preso eta iheslarien alde egiten diren bi ekimen garrantzitsuenetarikotan aditutakoak lehenagotik buruan nuen ideia indartu eta hausnarketatxo hau egitera eraman nau. 2018ko abenduaren 29a. Iruñerrian 20 bat urtetik hona antolatzen den Hatortxurock elkartasan kontzertuan talde bat entzuten ari nintzela, bertako kide batek Altsasuko auzipetuentzat hitz batzuk izan zituen, gainerakoez «atzenduz». 2019ko urtarrilaren 12a. Bilboko manifestaldiaren akabailako hitz-hartzean ere tarte berezi bat eskaini zitzaion Sakanako gazteei.

Ikaragarria da azken hilabeteetan bidegabekeria hau salatzen sortu den elkartasun olatua. Euskal mugak zeharkatu eta Espainiar Estatuko txoko anitzetatik etorri dira babes mezuak. Iruñean inoiz egin den manifestaldirik jendetsuenak 80.000 lagun bildu zituen 2018ko ekainaren 16an, zortzi auzipetuei bi eta hamahiru urte arte kartzela zigorrak jarri eta gero. Hurbilago etorrita, Elizondon urte bereko udaberrian

**«ALTSASUKOENA EZ
DA HOLAKO EGOERA
BATEAN GAUDEN
LEHEN ALDIA»**

antolatu zen elkartasun karabanaren baitan egindako manifestaldia arras arrakastatsua izan zen. Inolako zalantzarik gabe, epai hura aurrekari arriskutsua izan zen eta aski dela erran ezean ondokoa edozein izan

zitekeenaren sentsazioak erantzun zabal eta anitza ekarri du.

Alabaina, ez da horrelako egoera baten aitzinean gauden lehendabiziko aldia, ezta gutxiagorik ere. Polizia-muntaia eta epaiketa politikoen uztarketaz sortutako formula aspalditik aplikatua izan da Madrildik zuzendutako sorgin-ehizetan. Herri-mugimenduetan burua atera duen orori lepoa moztu izan zaio inolako gupidarik gabe, Altsasukoeekin gertatu den gauza bera, alegia. Zerrenda amaigabea bada ere, bat-batean pentsatuta hainbat kasu etortzen zaizkit burura: molotov koktel bat botatzeagatik 16 urteko kartzela zigorra bete zuenarena, sarekada batetik ihes egin ondotik beren burua epailearen aitzinean aurkeztu nahi izan zutenean terrorista bilatuenen zerrendan sartu zizutenena, torturapean egin ez dituzten ekintzak beren gain hartu dituzten guziena... Eta zergatik eramaten dituzte orain eskuak burura lehen antzeko kasuetan «zerbait egin izanen du» erraten zutenek? Akaso ez al ginateke orain bertze egoera batean egonen lehenagotik horrelako erantzunak eman izan bagenu?

«Lehendabizi komunisten bila etorri ziren eta ez nuen deus erran ez bainintzen komunistak, gero sindikalisten bila eta ez nuen deus erran ez nintzelako sindikalista, ondotik judutarren bila eta ez nuen deus erran ez nintzelako judutarra, azkenik nire bila etorri zirelarik ez zen inor gelditzen protestatzeko» dio Martin Niemöllerren poema batek eta uste dut ongi laburbiltzen duela gertatzen dena. Hasieran ETAKoa izateagatik zen, gero politikari eta herri mugimenduetara pasatu ziren eta orain edozein izan daiteke. Horregatik, Altsasukoak bai! Eta bertzeak ere bai!

11 GALDERA LABUR

MARIXAN BENGOTXEA URDAZUBIARRA

«Baserrikoak izateagatik burla egiten ziguten»

Aurkeztu zure burua.

1925ean sortu nintzen Urda Zubin dagoen Bordaxuria baserrian eta zortzi anai-arrebetan azken aitzinekoa naiz.

Nolako haurtzaroa izan duzu?

Gogorra. 7 urterekin hasi nintzen eskolan eta 11rekin gelditu behar izan nuen. Anaiak gerlara joan ziren eta etxean lagundu beharra zegoen...

Eskolatik aterata...

Eskola akituta etxerantz abiatzen ginen, oinez ordu eta erdiko bidea baikenuen...

Eskolan euskaraz egitea debekatu izan dizute?

Erdaraz egiten genuen, maisu-maistrak erdaldunak baitziren; gure artean, euskaraz eta erdaraz. Burlak jasan ditut baina ez euskalduna izatea-

gatik, baserrikoak ginelako baizik.

Denbora librean zer egiten zenu-ten?

Jolasordua goizetan bakarrik izaten genuen eta sokasaltoan, gordeketan edo kaniketan aritzen ginen. Egun, haurrek sobera aparatu moderno dituzte ikaskide baten laguntasuna estimatzeko...

Etxean edota etxetik kanpo lan egin duzu?

Nekazaria izan naiz duela 13 bat urte arte. Ardiak jetzi eta gasnak egiten genituen, bai etxerako baita saltzeko ere. Horretaz gain, jostuna izana naiz. Oroitzen naiz herriko etxeetako jendea kontent paratzen zela arropak egin edo konponduta. Jendeak pagatuz



edo bazkaltzera gonbidatuz eskertzen zidan.

Kontrabandoa ezagutu duzu?

Etxekoak hortan aritzen ziren. Gu poliziaren beldur izaten ginen, baina laborantzatik sos gutti ateratzen zen bizitzeko.

Herriko bestetan ateratzen zinen?

Arratsaldean plazara joan, dantza pare bat egin eta ilunabarrean etxera bueltatzen ginen,azienda lanak genituen. Gaur egungo gazteek ez dute horren kezkarik.

Oroitzapen on eta txar bat?

Momentu politena ezkondu eta familia osatu nuenekoa. Txarrena, 6-13 urte bitarteko lau haurrekin alargundu nintzenekoa eta alaba Maite galdu nuenekoa.

Zer egiten duzu egunerokoan?

Bizitza lasaia daramat: berriki aditu, josi, irakurri, paseatu...

93 urterekin sasoi ederra...

Momentu gogorretan aitzinerat ateratzen jakin behar da. Barne indarrak lagundu nau.

1951tik
Casa Cambra
 lentzeria-etxea
Merkealdia

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak
 edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

OSAKIDETZAKO
OSASUN ZENTRO BATEAN,
ZEINAREN IZENAZ
EZ DUDAN AKORDATU NAHI,
BAZEN BEHIN...

000

APAIZEN GELA
Sala de Curas



Osasun Zentroan arazorik ez izateko analisi eta gainerako probetako zitekin EZINBESTEKOA DA zita eskatzea bolanteak eduki bezain laster...

@garbincubeda

IRAKURLEAK MINTZO

Esplotaziorik gabeko nekazaritza herrikoia eta iraunkorraren alde

GOTZONE SESTORAIN ZABALETA

Azken urteetan Nafarroan sektore agroalimentarioa jarduera ekonomiko oso indartsua bilakatu da, bereziki Iruñetik behera. Automozioaren ondoren bigarren tokia hartzen du, 14.000 lanpostu inguru sortuz. Elikagaien esportazioa gorakada izugarria izaten ari da, 2008tik %125 hazi da.

Elikagaien industria horren oinarrian lehen sektore indartsu bat dago. Baina nolako eredia dugu gaur egun? Mejanako nekazari txikiak desagertuak dira, eredu agroekologikoan ari direnak gutxi batzuk, Errigoran parte hartzen dutenak anekdota dira «eskala handira» eredu intentsibo-industrialean ekoizten dutenekin alderatuta. Eredu horretan ez da elikadura burujabetza klabeetan ekoizten, mundu mailako merkatu globalera begira dagoen nekazaritza elikagaien industriarentzat edota banaketa kate handien zerbitzura dauden bitartekariarentzat lehengai edota merkantzia merkea ekoiztea da helburua.

Eskala handira ekoizteko eredu horrek soldatapeko langilea kontratatzea ezinbestekoa du eta bi baldintza eskatzen ditu: kontratatzeo malgutasuna eta kostu baxuak bermatzea.

Soldatapeko langileena ez da oraingo kontua. Iraganean peoiak kontratatzen zituen nekazariak, zainzuri eta piper bilketara etortzen ziren eta diren jomalari andaluziarren kasua aspaldikoa da. Egun oraindik 3.000ren bat etortzen omen dira Nafarroako Erriberara. Eredu intentsibo-industrial nagusitu ahala, landa eremuan langileak

kontratatzeara erabat zabaldu da. Bertakook jadanik nahi ez ditugun lan gogor eta gaizki ordainduak etorkinek egiten dituzte. Nolako baldintzetan? Huerta de Peraltako langileen borrokari esker ezagutu dugu ezkutuan zegoen errealitate gordina: kostuak murrizte aldera, gizon-emakume horien egoera hauskorraz baliatuta, zein baldintza prekarioetan, askotan esplotazio egoera latzean, ari diren soldatapeko asko.

Etorkinak zigor bikoitza sufritzen duten baztertuak: hemen egurtuak eta euren lurraldetatik beharrak deserritatuak. Eta hemen, Nafarroan, errealitate hori bera dugu nagusi. Eredu horrekin soldatapekoak gaizki eta txikiak ere errenta duin bat lortzeko gero eta zailtasun handiagoarekin.

Beraz, zenbait arduradun politikok eta industria erraldoietako enpresaburuk horrenbeste gorapatzen duten eredu hori piramidearen goiko erpinean daudenentzat baino ez da onuragarria eta negozio iturri bikaina. Horregatik, logika kapitalista eta produktibista hori gaitzitzeko landa eremuko langile guztiak ezinbestekoa dugu indarrak batzea. Epe motzera landa eremuan duintasunez bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak aldarrikatzea dagokigu, prezio justuak edota soldata eta lan baldintza duinak bermatzeko eskatuz. Eta epe luzera, mundu mailan horrenbeste desoreka ekologiko eta sozial sortzen duen egungo elikadura eta nekazaritza eredia eraldatuko duten estrategiak lantzea da gakoa, herrien elikadura burujabetza eta ingurumena eta landa eremuko guztion giza eskubiak modu integralean errespetatuko dituen nekazaritza herrikoia eta iraunkorra eraikiz.



BOTA BERTSOA

ENEKO FERNANDEZ
LESAKAKO BERTSOLARIA

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Doinua: Baneza eta banitu

*Gai jartzailen hausnarketa
ta epaileen azterketa
oztopodun lasterketa
emozioen le(he)rketa
Hilabetetan zehar ixilka
gorpuztu den prestaketa
oholtza batean azalduko da
gailur edo erorketa!
Otsailan hasi ta martxorarte
hitz neurtuen josteta
Hastear dugu Nafarroako
Bertsolari txapelketa (bis)*

*Guztia prest dago jada
Tutera hasiera da
eta bailaraz bailara
helduko da Iruñara
Eskualdean ere izanen
da gozatzeo parada
Urdazubitik Iruritara
eta handik Lesakara
Protagonista handi gisara,
bertsoa eta euskara!
Plazer baduzu bertso saioen
bueltan elkartuko gara (bis)*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58



Patxi Irigoien erratzuarra, euskal rockaren «deskonexioa» aztertzen duen dokumentalaren zuzendaria. UTZITAKOIA

«Euskal Herrian 'Esker 1000' dokumentala zabaldu nahi nuke»

PATXI IRIGOIEN 'ESKER 1000' DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA

Iñigo Otaegi eta Josu Artutxarekin batera, Euskal Irratiek sustaturiko Esker 1000 proiektuaren harira, dokumental baten sortze prozesuan parte hartu du Irigoienek

N. BAZTERRIKA ERRATZU

Ahotsa, irudia eta sormena dira Patxi Irigoienek bere ibilbidean erabili dituen lanabesak. Ikus-entzunezkoen «bapatekotasunak» erakarrira irratian eman zituen lehendabiziko urratsak; ondotik, telebistan garatu zituen gaitasunak; eta joan den urtean *Esker 1000* dokumentalaren sortze- eta zuzendaritza-prozesuan jardun zuen. Negu-udaberriko «dokumentala ezagutzera ematea» du erronka.

Ikus-entzunezko komunikazioak ikasi dituzu. Zerk bultzatuta?

Hemezortzi urte nituela, Gasteizera joan nintzen Geografia ikastera. Lehendabiziko urtean

Mintzaera eta idazkera izeneko irakasgaiko irakasleak mezu bat bidali zigun Gasteizko euskara elkarte batek *Radio Vitorian* euskarazko saio bat egiteko lizentzia lortu zuela erranez. Hori irakurri eta animatu egin nintzen... Orduan konturatu nintzen munduhura zela maite nuena. Apirila zen eta Geografia ikasketak uztea erabaki nuen. Ikus-entzunezkoetara jo nuen, proiektuen sormen-prozesuak eta tartekako bapatekotasunak erakarrir ninduen gehien.

Euskadi Gaztea irratian aditu izan zaitugu...

Arratsaldetako 'Gaztea Box' saioan lan egin nuen. Saio berria zen baina izan nituen

lankideek eskarmentu handia zuten ez aunitz ikasi ahal izan nuen.

Irratitik telebistara...

Mondragon Unibertsitateak telebista tiki bat du eta hor astero erreportajeak egiten ditu. Horretarako, urtero aurkezle bat hautatzeko casting bat egiten dute. Aurkeztu eta hautatua izan nintzen. Urtebetez aritu nintzen. Eskola ona izan zen, aunitz ikasteko eta jendea ezagutzeko aukera izan nuen eta aberasgarria izan zen.

'Bota Erronka' saioa zuzendu zenuen... Nolako esperientzia izan zen?

Hirugarren mailan telebistako entretenimendu-saioei bu-

ruzko ikasgai bat eman genuen. Azken proiektu bezala Goiena telebistako udako programazioan sartuko zen saio bat ekoitzi behar genuen. Ordura arte, aurkezle lanak egiteko ohitura izan banuen. Hortaz, bertze lan batzuetan jardutea erabaki nuen. Bertan zuzendari eta ekoizle lanak egin nituen.

'Gure kasa' saioan kolaboratzailer lanak egin dituzu...

Gaztea Irratian bekadun nintzelarik, dei bat jaso nuen ETBko saio berri batean lan egiteko. Gazteko lankide ugari bertatik pasatu ziren, nola baiteko harremana izanen baitzuen telebista saio horrek irratiarekin. Esperientzia polita izan zen telebistako ezagutza ezagutzeko eta ordura arte irratian lankide izan nituenekin pantaila partekatze-ko aukera izan nuen... Bertalde, ordea, hilabete bateko kontua izaki, ez nuen gehiegi gozatzeko aukerarik izan. Telebistara ohitzea kosta egin zitzaidan...

Euskal Telebistan esatari ere bai...

Bizpahiru aldiz zesta-puntako partidetan aritu izan naiz, Felix Espilla puntista izandakoa-rekin.

2018an *Esker 1000* dokumentala egin zenuen...

Duela urte batzuk Italian Rokin 1000 izeneko ekimen bat hedatu zuten. Egitasmo horretan mila musikariek Foo Fighters taldearen abesti ezagun bat defendatu zuten. Euskal Irratietako ordezkariak Euskal Herrian rockak izan duen ibilbidea omentzeko halako egitasmo bat garatzea bururatu zitzaion. Laguntza eske fakultatera jo zuten. Dokumentala hiru lagun arteko elkarlana izan zen: Iñigo Otaegi eta Josu Artutxa ikas-kide eta lagunekin aritu naiz lanean. Gu proiektuaren antolakuntzan ez ginen murgildu baina ikus-entzunezko sormen-lan bat egin genuen. Joan den otsailan abiatu eta ekainaren 26an akitu genuen.

Egia erran, ez genuen nahi adina denbora izan luze eta zabal lantzeko baina genituen baliabideekin aitzinera ateratzea lortu genuen eta kontent gelditu ginen.

Zein izan zen helburua?

Rockaren sortzaileek egungo usteko egoera hori nola bizi duten erakutsi nahi izan genuen. Egungo egoera islatzeko, historiari erreparatu genion: ikuspegi soziopolitikoari, euskarari, musikaren-merkatu-ratzeari... helduz. Aunitz dira jorraturiko alderdiak, formatu laburrean, ordu erdi eskas irauten duen ikus-entzunezko batean.

Zer prozesu izan du lanak?

Hasteko, hari bat sortu genuen eta gaiak horren bueltan lotu genituen. Horiek lantzeko protagonistak bilatu genituen: batetik, diskurtso egokia zuten sortzaileak nahi genituen; bertzetik, euskaraz diharduten taldeei eman nahi genien solasa; generoari ere behar zuen trataera eman nahi genion... Zaila izan zen, oro har musikan eta bereziki rockean gizona-koak gailendu baitira.

Dokumentalean «euskal rockaren deskonexioaz» aritu zarete. Azalduiguazu.

Azken urteotan Euskal Herrian rocka gainbehera prozesu batean dagoela erran izan da: jendeak ez duela rock musika entzuten aditzen da han eta hemen. Nola ez, errua belau-naldi gazteena dela erran izan da. Gizarte postmodernista honetan etorkizuna eta aitzina

nera begira jartzea da garrantzitsua, eta horretan gazteok gara gako.

Hori lantzeko hamabi elkarrizketa egin dituzue...

Gizartearen egungo testuinguru historikoa aztertzeko, Jon Eskisabel –Badok atariko zuzendaria–, Ion Andoni del Amo –EHUko soziologoa– eta Itziar Alduntzin irrati esatariarekin mintzatu ginen. Rocka nola bizi duten jakiteko Niko Etxart, Mixel Ducau eta Roberto Mosorekin solastatu ginen. Disketxeek jasan dituzten aldaketak ezagutzeko, Gor disketxeo Marino eta Patxi Goñi elkarrizketatu genituen. Eta azkenik, egungo taldeetan dihardutenen hitza bildu genuen: Bi Bala taldeko Aitzol Barandiaranena eta Iñaki Gurrutxagarena; Liher taldeko Lide Hernandorenarena; eta Willis Drummondoko Jurgi Ekiza eta Joseba B. Lenoirrena.

Jasotako ikuspuntuak bateragarriak izan al dira?

Inondik inora. Iritzi kontra-riak daude eta dokumentala ikusten duen orok hori segidan nabaritu du. Dena dela, horrek ikusi ondotik mahai-inguruko giroa sortzea eragiten du. Ezin erran kasualitatea izan denik, hori bilatu baike-nuen...

Zein izan da rockaren bilakaera?

Rocka Euskal Herrian mugimendu kontrakultural moduan sartu zen, sistemaren aurkako mezuak bidaltzeko baliabide gisa. Geroztik estiloak garatu dira eta aunitz dira egun. Horrek ez du guttiago kontsumitzen denik erran nahi...

Eta zure ustez, zein da euskal rockaren egungo egoera?

Horri inor asaldatu gabe erantzutea arras zaila da. Nire ustez, egun, Euskal Herrian musika eskaintza zabala eta arras ona dugu; ez rockean bakarrik, baita bertze estiloe-tan ere. Oraindik ere grabatzen diren disko gehienak rock etiketaren barruan sartzen dira baina pixkanaka bertze estilo batzuk sortzen eta, batetik bat, euskarara gerturatzen



Iñigo Otaegi eta Patxi Irigoien Niko Etxartekin. UTZITAKO ARGAZKIA

Esker 1000 proiektua

Euskal Irratiek «euskal musikari eta rockari omenaldi bat egiteko, euskal rocka mundura zabaltzeko, Iparraldeko eta Hegoaldeko jendea elkartzeko...» sustaturiko proiektua da Esker 1000. Helburua asebetetzera bidean, «musikagintza eta bideogintza» uztartuz ari dira lanean.

Mundura hedatzea jomuga

Lehen urrats gisa, proiektua «hornitzeko», dokumentala sortzen lan ederra egin zuten Otaegi, Artutxa eta Irigoienek: «sarean, *Badok* atarian, *Argian* eta *Kanalduden*, ikus daitekeena». Ondotik, azaroaren 24an Baionako Lauga kirodegian 100 musikari elkartu eta 'Euskal Rock n' Roll' kantaren produkzio bat grabatu zuten: «Zarama, Lauroba, Niko Etxart... batera izan ziren eta ikusgarria izan zen». Aurten Hego Euskal Herrian 11 kantez osatutako produkzio bat egin nahi dute eta 2020rako euskal rocka diasporara zabaltzea, han eta hemen ezagutaraztea eta trukatzera dute jomuga.

«ROCKA GIZONEN KONTUA IZAN DENEZ GENEROA LANTZEA ZAIL DA»

«EUSKAL MUSIKAZALEOK GUREAZ GOZATU BEHAR GENUKE»

ari dira. Ttap aldizkarian Gor-ka Urbizur erantzundakoarekin bat eginez, euskal rockaren nostalgia jada ez dela zena erranen nuke.

Elkarrizketez gain artxiboko irudiak arakatu dituzue...

70eko eta 80ko hamarkadetakoa irudi historikoak Euskal Telebistatik, Kanaldudetik eta Hatortxu Rockeko artxiboetatik eskuratu genituen. Egungo ere tartea eskaini genien...

Ondorio sakonik atera duzue?

Ez nuke ondorio nagusi bat aipatuko; nire buruan gogoe-ta eragin duen proiektua izan dela erranen nuke. Euskal musika gutti kontsumitzen dela iruditzen zait, dena mitilantzia da. Kulturgintza mai-

te eta kontsumitzen dugunok gureaz gozatu beharrean bertzeek zergatik ez duten kontsumitzen begira egon ohi gara.

Nonbait erakutsi duzue?

EHZ jaialdiaren harira, Baionan izan ginen, Tolosako Las-korain ikastolan ere erakutsi genuen eta berriki Usurbilgo kultur etxean izan gara. Azken horretan mahai-ingurua ere egin genuen. Koldo Otamendi *Musika Zuzeneaneko* arduradunak parte hartu zuen. Ea aurtengo negu-udaberrian gehiago mugitzen garen. Nire asmoa orain *Esker 1000* dokumentala Euskal Herrian barna ezagutzera ematea da. Eskualdetik hastea ez legoke gaizki...

Ezinegona eta haserrea pentsiodunen artean

Joan den urteko urtarrilean atera ziren lehenbiziko aldiz pentsiodunak karrikara, pentsio sistemarekin kritiko. Protestaka segitu dute geroztik, eta karrikan egotea eta jendea kontzientziatzea lortu dutelako kontent daude. Baina oraindik ezinegona sumatzen da eurengan

G. PIKABEA

Urtebete baino gehiago pasatu da pentsio duinak eskatuz elkarretaratze eta manifestazio jendetsuak hasi zituztenetik. Pentsiodunak kexu ziren pentsio sistemarekin eta kexu dira oraindik ere, baina kontent daude egindako ibilbidearekin. «Horrelako mobilizazioak egitea eta urte osoan horrelako egoera mantentzea garaipena da. Bide onetik goaz». Halaxe adierazi digu Patxi Urrutia Amaiurko pentsiodunak eta Sasoia jubilatuen elkarteko kideak. Ez hori bakarrik. «Eratzat pentsiodunen kontrakoak ziren zenbait neurri gibelatzea lortu da» eta herritarrek hartu duten kontzientzia ere nabarmendu du: «bizi duin bat izateko denok guttieneko batzuk behar ditugula ikusarazi da».

Eskaerak eta lorpenak

%0,25eko igoerari ezetz errate, denentzat 1.080 euroko guttieneko pentsioa eskatzea eta pentsioen kudeaketa Nafarroan egitea izan dira pentsiodunen eskarietako batzuk. Eta urtebeteko borrokaren ondotik, emaitza batzuk lortu dira. Hala nola, Espainiako Gobernuak pentsioak KPIaren arabera igoko dituela iragarri du: 2018an %1,7 eta 2019an %1,6. Horrekin batera, guttieneko pentsioak %3 igotzea lortu dute. Alargun pentsioaren oinarri arautzailea %52tik %56ra igo zen 2018ko abuztuan eta %60ra igo dute aurten.

Bertzalde, 2013an, PPre reforman indarrean sartu zenean, 2019an iraunkortasun faktorea aplikatuko zutela

onartu zuten, hau da, pentsioa kalkulatzeko, 67 urtetik aitzinerako bizi-itxaropena ere aintzat hartzea. Alegia, herritarren bizi-itxaropena handituz gero, guttitu egingen litzateke urteropentsioa. 2023ra arte bederen, faktore hori indarrean ez sartzea lortu dute.

Egin dena «garrantzitsua» da Urrutiaren irudiko, «urtetik urtera pentsioak murrizteko zuten asmoa oraingoz eten da». Baina oraindik ere eskaeraz errenda luzea da: pentsioak beti KPIaren arabera igotzea,

guttieneko pentsioak 1.080 eurora igotzea, genero arteko aldea desagertaraztea... «Gizarte justu bat lortzeko helburuarekin ari gara lanean».

Dirua eta borondatea

Administrazioen jarreraren harira, Nafarroako Gobernua «ona» dela dio: «pentsio apalenak diruz laguntzen ditu, eta pixkanaka goiti joan da». Eusko Jaurlaritzarekin, ordea, kritiko da: «EAJk ez du deus jakin nahi izan pentsiodunei aurrekontuetako diru pixka

bat emateko proposamenaz. Kapitala defendatzen dutenak pentsioen bitartez beraien sakela haunditu nahi dute».

Espainiako Gobernuari Toledoko Ituna «apaindu» nahi izatea leporatu dio. Sei hilabetez gibelatua du pentsioak gaurkotzeko kalkulu berria erabakitzeko epea. Baina Urrutiak erne ibili behar dela dio: «egiten dituzten mugimendu guzti-guztiak gu okertzeko dira. Hau edo hori egitea beharrezkoa dela sinetsarazi nahi digute, errealtatea gorde eta arazoa ekonomikoa dela sinetsarazi. Pentsioak ezin direla mantendu sinetsarazi nahi digute baina gezurra da». Bere irudiko, «dirua ez da inondik inora ere falta; borondatea falta da. Dirua beraien negozioetarako erabili nahi dute eta aseguru etxe eta banketxeek kudeatu nahi dute».

Mobilizatorako deia

Pentsioen gaia eztabaida politikora eramatea lortu dute, eta kontent daude horrekin. Hauteskundeak ate joka dardela eta, Urrutiak pentsioen eztabaidak segitzea espero du. Pentsiodunek «pisu handia» dutela gogora ekarri du, «%26a gara». Hor daudela oroitarazteko karrikara ateratzen segitzeko asmoa du amaiurtarrak, «jendeari hor gaudela eta arazoa ez dela konpondu jakinarazteko». Pentsionistak Martxan ekimenetik ere orain arte bezala elkarretaratzeak egiten segituko dute Donezteben, hilabeteko hirugarren astelehenetan, 12:00etan, Gizarte Segurantzaren bulegoaren aitzinean.

Urrutiak argi du mobilizazioa dela bidea, eta irtenbidea «gure esku» dagoela: «gizartea mugitzen bada pentsio duinak izanen ditugu». Hortaz egin die deia «pentsiodunei eta ez direnei», bereziki gazteei: «gaurko borroka gehienbat beraien interesen aldekoa da. Ez da jubilatuen borroka bat, langile eta jende xumearen aldeko borroka baiziki».



Hainbatetan atera dira pentsiodunak karrikara protestan JAVIER BERGASA | NOTICIAS

Zer iruditzen zaizu pentsiodunen egoera?



LOURDES ERBITI
LEITZA I 2012AN JUBILATUA

«Asko dira ezin ailegatuz dabiltzanak»

Hilabete bukaerara iristeko arazorik ez duen arren, pentsioen kontua «oso gaizki» ikusten du Erbitik. «Leitzan ere asko dira ezin ailegatuz ibiltzen direnak eta Caritase-ra joaten direnak». Hortaz, «pentsioak gehiago igotzea» eskatzen du. «Alarguna gelditzean, gizonarena %52 jais-ten dute eta lehendik gutxi kobratzen baduzu, ea nola gelditzen zaren!». Politikarien aldetik, borondatea «falta» dela dio: «beraien jornalak ederki igotzen dituzte; ez dituzte %0,25a bakarrik igotzen».



JUAN ISAAC ALZUGARAI
ALMANDOZ I 2005EAN JUBILATUA

«Pentsioendako bertze sistema bat behar da»

«Pentsio batetik bertzera diferentzia haundia» dagoela dio Alzugarai eta «pentsio baxuak goratu eta laguntza gehixea eman» beharko luketela uste du. Dirua badela adierazi digu, baina pentsio sistema aldatu beharko luketelakoan dago: «aspaldiko urtetan betiko ereduarekin gaude. Lehen pentsiodun batendako bizpahiru langile ziren eta sistema horrekin nahiko ongi joan da. Orain, ordea, pentsiodun batendako ez dakit bi langile izatera ailegatzen diren. Bertze sistema bat behar da».



JOSE IGNACIO TELLETXEA
ELGORRIAGA I 2011N JUBILATUA

«Egoera ikusita ezin da eskatu»

Jasotzen duen pentsioarekin «kexatzekorik ez» du Telletxeak, eta «pribilejiatua» sentitzen da: «gazte denbora lanean pasatu eta urtetan kotizatu dugu. Poliki irabazi eta aunitz aurreztu dugu». Baina, oro har, pentsioen kontuekin «martxa txarra» ikusten du. «Segur aski dirua falta» izanen dela dio. Egoera dagoen bezala ikusita, «ezin da eskatu» bere ustez: «700 euroko pentsioak ez dira aski, baina Gobernuak kontuak atera behar ditu. Nondik eman behar du? Gai delikatua da».



MERTXE DE BENITO
LESAKA I 2016AN JUBILATUA

«Elkartasun falta sumatzen dut»

Jendearen aldetik «elkartasun falta» sumatzen du De Benitok: «jendea ez da mugitzen. Gazteak ez dira ohartzen euren etorkizuna okerragoa dela». Beharra dutenek «protestatu nahi ez izatea tristea» dela dio. Bereziki emakumeak «larri» ikusten ditu, «etxetik kanpo lan egin ez eta minimoa kobratzen dutenak». Politikariak «promesekin ahoa betetzen» dutela salatu du: «poliki-poliki gure eskubideak kentzen ari dira. Jendea konforme dago, ez du ikusten eskubide guztiak galtzeko arriskua dugula».



ROSA MARI BERTIZ
ORONÓZ I 2002AN JUBILATUA

«Alargunen egoera nabarmenduko nuke»

Alarguna da Bertiz, eta etxetik kanpo lanean ere ibilia denez, bere paga eta alargun pentsioa kobratzen ditu. «Ez da aunitz, baina biek in bizi ahal da». Ez zaio «batere ongi» iruditzen «bizi guztian etxean lan egin duten alargunak hain pentsio baxuarekin gelditzea eta alargunak izan ala ez, beti etxean aritu diren emakumeek deuse-tarako eskubiderik ez izatea». Horiek ere «bizitzeko paga duina» beharko luketela dio. Argi mintzo da: «guretako dirurik ez dagoela diote baina lapurretan ari direnendako bada».



CALIXTO ESTANGA
ERATSUN I 2015EAN JUBILATUA

«Solas asko eta asmo gutxi konponbiderako»

Estangak hemen eta Frantzia- lan egindakotik kobratzen du eta «bakarra naizenez, hilabete bukaerara iristen naiz». Harelere, «etorkizuna kezkatzekoa» dela dio. «Gaurko jornaletatik ezin da pentsio asko kobratu. Ez bada iristen ezin da eman, baina beste sistemaren bat bilatu beharko lukete». Toledo-ko Itunarekin «gora eta behe- ra» sumatzen ditu politikariak: «solas asko egiten dute baina gure botoa bakarrik nahi dute, gero nahi dutena egiteko. Egoe- ra ez da erraza baina ez dute konpontzeko asmo haundirik».



JULEN MITXELORENA
ELIZONDO I 2018AN JUBILATUA

«Hau ez da soilik erretiratuen afera»

«Pentsio publikoak eta propioak eta 1.080 euroko guttieneko pentsioak» aldarrikatzeaz gain, Mitxelorenak argi utzi du «ez dela soilik erretiratuen afera». Herri honetan behar gehiena duten sektore eta pertsonen arteko «elkarlanaren» beharra azpimarratu du, «herri bezala funtzionatu eta gauzak lortzeko». Etorkizuna ere «landu beharra» dela ikusten du: «jendea inplikatzeko bada, eta aldarrikapenetan sinesten badu, emaitzak lortuko dira. Borroka luzea izanen da baina horretan segitu behar dugu».



MARIA EUGENIA AROZARENA
ELIZONDO I 2008AN JUBILATUA

«Batzuek pentsio miserableak dituzte»

Ez da bere kasua, baina «batzuek pentsio miserableak» kobratzen dituztela salatu du Arozarenak, «bizitzeko adina ere ez direnak». Inguruan «gerrikoa dezente estutu» behar izaten dutenak ezagutzen dituela aitortu digu eta alargunak ere gogoan izan ditu, «pentsio minimoak jasotzen dituztelako». Horregatik eskatu du «pentsio altuagoak» izatea. Etorkizuna, berriz, «beltza» ikusten omen du. «Orain igoera izanen dugu baina igoera hori barregarria» iruditzen zaio.

Hileta-elizkizunetan kantari gehiago bila dator 'Bera Agur'

Abeslari taldea sendotu nahi dute eta parte hartu nahi dutenek otsailaren 18an izanen dute bilera Musika Eskolan

TTIPI-TTAPA

Gaur egun hileta-elizkizunetan abesten diren kantuak ikastea ez ezik, bi ahotsetara abesteko errazak izanen diren bertze batzuk ikasteko helburuarekin *Bera Agur* egitasmoa lantzen hasiak dira. Proiektu honekin bat egin nahi dutenek lehenbiziko bilera otsailaren 18an, astelehenean 19:00etan izanen dute Musika Eskolan. Abesbatzatik aipatu dutenez, ez da beharrezko solfeoa jakitea eta hileta-elizkizunetan kantatzeko prest daudenak gonbidatu dituzte, bertze be-

tebeharririk eta loturarik gabe. Iñigo Arana Iñiguez herritarra izanen da organojolea eta berak bilatuko du bere ordezkoa, jo ezin duenean.

Taldea sendotzea

Gaur egun, hileta-elizkizunetan kantatzen urte aunitz daramazkiten abeslariak daude, baina batzuetan jende gutti izaten direnez, Altzateko elizan kantatzen dutenak ere sartuak dira taldean. Beraz, orain abeslari talde polita badago ere, hori sendotu nahi dute *Bera Agur* egitasmo honekin.



Abesbatza elizan kantari, joan den urteko San Esteban egunean. UTZITAKOA

Inauterietarako prestatzen hasteko tenorea ailegatu da

Otsailaren 23an aterako dira kaldereroak. Inude eta Artzainetako entsaioak otsailaren 26an, asteartean eta martxoaren 1ean, ortziralean, egingen dituzte Eztegarra pilotalekuan, 19:00etan.

Bestetako lehenbiziko bilera otsailaren 20an

Oraindik inauteriak ospatze-koak badira ere, herriko bestak antolatzen hasia da dagoeneko Kultur Batzordea. Lehenbiziko bilera irekia otsailaren 20an egingen dute, 19:00etan Beralandetan.

Gazteentzako logelak
Zure beharretara egokitzen gara

ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA
AMETS

Egongelak Logelak Gazteentzako logelak Sofak Txokook

C/Sastrin 2,3,4 BERA | 948 630 537 | amets@mueblesamets.com MUEBLESAMETS.COM



Iraizoz okindegia XX. mende erditsuan. Eskuinean, Abbé Pierre, Javier Iraizoz eta Montxo Iturrizarekin, 1983an. JAKINTZA

Emauseko sortzailea Beran aterpetu zenekoa oroitzuz

Ziburuko 'Jakintza' elkarteak argitaratutako liburuxka herrian ere eros daiteke zortzi eurotan

TTIPI-TTAPA

Mundu osoan ezagun egin den Emaus erakundeko sortzailea izan zen Abbé Pierre edo Pierre apaiza. Munduko bigarren gerla handiaren garaian, bere bila zebilen Gestapotik ihesi Frantziatik Algeriara joan zen eta bidean, Urruñeta eta Bera artean 1944ko maiatz-ekainean muga nola gainditu zuen azaltzen duen liburuxka argitara eman du Ziburuko Jakintza erakundeak, frantsesez eta euskaraz.

Pierre Apeza Espainiarat pasatzea bigarren gerla handian goiburupean argitaratu den liburua zortzi eurotan salgai topa daiteke Beran ere, Agara eta Irene liburu-dendetan. Liburu horren aurkezpena egiteko urtarrilaren 17an herrian izan ziren Jakintza elkarteak. Altzateko elizako apaiza den Patxi Iñigo



Jakintzako kideak Altzaten.

eta Ignacio Iraizoz, 1944an Beran ostatu eman zioten okindegiko Javier Iraizoz eta Maria Jesus Oteizaren semea izan ziren aurkezpen horretan. Izan ere, Iraizoz okindegian aterpetu zen Abbé Pierre, Al-

URRUÑATIK BERARA PASATU ZEN GESTAPOTIK IHESI 1944AN

tzateko elizan eman zuen meza eta ondotik, Guardia Zibilak atxilotu zuen. Maiatzaren 26tik ekainaren 6ra Irunen atxiki zuten, ekainaren 7an trenaz igorri zuten Madrilerat eta ekainaren 14an Andaluziara bidea hartu zuen, La Linea de la Concepcion herrira. Bi egunen buruan, Ingalaterraren esku zegoen eta dagoen Gibraltarrera pasatu zen. Han ere, Beran bezala, meza eman zuen eta hegazkinez joan zen Algeriarat.

Argitalpenean, Pierre apaizak Urruñeta eta Bera artean egin zuen bidearen berri ematen da, aitzinetik Dantxarinea aldean saiakera egin ondotik. Muga inguru guztia alemaniarrek zaindua zen eta hori gainditzeko, bi aldetako mugalarien laguntza ezinbertzekoa izan zuen Emauseko sortzaileak.

Aipatzekoa da 1983ko azaroan Berara bueltatu zela Abbé Pierre, ia 40 urte lehenago laguntza eman ziotenei esker ematera. Javier Iraizozekin bildu zen eta Montxo Iturriza Zabala idazlea izan zen topaketa horren lekuko. 2002an *Larrunpean* liburua idatzi zuen espainolez, Abbé Pierreren hil ala biziko abentura haren berri emanez.

Dron bat egiten ikasteko ikastaroa martxoan

Ikasi dron bat egiten ikastaroa antolatu dute Udalak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, 16 urtetik goitikoei zuzendua. Martxoaren 9, 16, 23 eta 30ean eskainiko da Beralandetan, 09:00etatik 14:00etara. Izen-ematea martxoaren 1a arte egin daiteke (10 euro).

Gaita eta atabal tailerrak larunbatero

Udalak eta Kultur Batzordeak antolatuta otsailetik ekainera larunbatero gaita eta atabal tailerrak egingen dituzte Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolan, 13:00etatik 14:00etara. Urtarrilaren 30ean bukatu zen izena emateko epea eta hainbat lagun hasi dira.

Ainhoan egingen den Herri Aitadan parte hartzeko deialdia

Zugarramurdi, Etxalar, Ainhoa, Sara, Urdazubi eta Bera herrien arteko egun-pasa eder eta polita, elkarren arteko harremana sendotzeko antolatzen den eguna da Herri Aitada. Joan den urtean egin zen lehen edizioa Saran eta aurten bigarrena egingen dute Ainhoan maiatzaren 18an. Bertan parte-hartzera animatzeko deialdi berezia egin dute Beran: «batez ere mendi bizikleta eta herri-kiroletarako jende faltan gaude». Izen emateko deitu edo washapez mezua bidali 680 338 153 telefonora.

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

JAKINTZA - GOKOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 · Altzate, 21 · BERA

Presets y Verduras
ERANDONEA, S.L.
PIREAR ERA BAKAZIAR
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 · BERA



2015ean ere finalurrekoa jokatu zen Harriondoan. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko lau bertsolari hasiko dira txapelketan

Nafarroako Bertsolari Txapelketako azken finalurrekoa hartuko du Harriondoa Kultur Etxeak martxoaren 10ean

AITOR AROTZENA

Herritarrek eta herriak protagonismoa izanen dute aurten ere Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Lau bertsolari ariko dira: Eneko Fernandezek otsailaren 9an kantatuko du Tuterako final-laurdenetako lehen saioan; Iban Garrok hilaren 10ean kantatuko du Urdazubiko Kultur Etxean; Xabier Terrerosek hilaren 16an Iruiritakoan eta Josu Sanjurjok hilaren 17an Lizarran.

Behin final-laurdenetako saioak bukatuta, hiru finalurreko jokatu dituzte eta horietatik azkena Harriondoa

Kultur Etxean izanen da martxoaren 10ean (17:30). Saio honetan, Irurita eta Lizarrako final-laurdenetako irabazleak izanen dira, bertzeak bertze. Fernando Anbustegi izanen da gai-jartzailea. Martxoaren 23an Iruñeko Anaitasunako finalistak jakinen dira orduan.

Beti bezala, serio hartu dute herriko bertsolariek txapelketa eta joan den ortziralean simulakro-saioa egitekoa zuten Arranon Fernandez, Garro eta Sanjurjok, Berako Julen Zelaietarekin batera. Maddi Ane Txoperena izan zen gai-jartzailea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ubiria eta San Juan piloto onenen artean

Joan den urtean, Nafarroako lur gaineko rally txapelketan bikain ibili ziren herriko gidariak. Iñaki Ubiria txapeldun izan zen eta Banesa San Juan hirugarren. Urtarrilaren 19an jaso zituzten sariak Murtxanten. Asfalto gaineko txapelketan, kopilotoen artean hirugarren izan zen Xabier Andueza.



LESAKAKO UDAL LIBURUTEGIA

Irakurri eta paperezko itsasontziak egin

Iker Altzugarairen ahotik *Beruneko soldadutxoa* aditu eta bere eskutik paperezko itsasontziak egiten ikasteko tailerra izan zuten ilbeltzaren 28an udal liburutegian. *Baziren behin 8 liburutegi* izenburupean, Nafarroa osoko liburutegitan egiten ari dira horrelako jarduerak.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

IRU-BIDE
OSTATU · JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili
DenakBat
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

744 484 361
ttipi-ttapa

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Euskal Telebistako 'Errepide galduak' saioan protagonista

Hainbat herritar atera ziren Ander Izagirre kazetariak gidatutako saio interesgarrian

IRUNE ELIZAGOIEN

Ander Izagirre kazetari eta idazleak gidatutako *Errepide galduak* saioan agertu ziren hainbat herritar urtarrilaren 24an Euskal Telebistan. Garai batean portugaldar aunitz pasatzen ziren gure ingurutik Frantziarako bidean, baita Etxalartik ere.

Istorio hauek kontatzen jardun zuen Pello Apezetxea herriko apezak *Bidasoaren bi aldeak* izenburuko atalean. Juan Bautista Mitxeltorena ere portugaldarrekin harremana izandakoa da; gidari-lanak

egiten baitzituen, Sunbila aldetik zetozenak Sara aldera eramaten lagunduz eta garai hartako pasadizoak kontatu zituen. Miren Olaetxea ere azaldu zen programan, *Karmen Etxalarkoa* pastoraleko Karmen pertsonaiaren inguruan solasean.

Pastorala idatzi zuen Gerardo Mungia idazlea eta gurasoak etxalartarrak dituen Rosa Arburua historialaria ere aritu ziren solasean, Bidasoaldeko bertze zenbaitekin batera. Saioa berriz ikusi nahi duenak *EITB nahieran* dauka aukera.

Beharrea daudenendako janari-bilketa

Aurten ere beharrea daudenei laguntzeko janari-bilketa egin da, parrokiako juntak antolatuta. Berrikuntza bezala, aurtengoan diruz laguntzeko aukera ere egon da. Denetara 2.000 euro baino gehiago eta 249,2 kilo janari bildu dira.

Inauterietarako prestaketak hasiak dituzte

Inauteriak martxo hasieran izanik, herritarrak egun horiei begira hasiak dira. Landagain eskolakoak antzerkiak prestatzen, eta herritarrak moztiro eta gainerakoak pentsatzen. Beti bezala, Ortzegun Gizenarekin hasiko dira eta Astearte Inaute egunarekin bukatu.



Pello Apezetxea, Juan Bautista Mitxeltorena eta Miren Olaetxea, saioan. EITB

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

BIDALI PAKETEA DHLrekin XAGUren BITARTEZ

ZERBITZU BERRIA ***** BILKETA-PUNTUA

BIDALI PAKETEA XAGU LESAKAREN BITARTEZ
www.dhiparcel.es/es/particulares.html

XAGU LIBURUDENDA LESAKA

XAGU Koskontako bidea, 7 LESAKA Tel.: 948638232 lesaka@legarra.org

Zuzendaritza batzordearen erdia berritu du Biltokik

Ilbeltzaren 26an egin zuen urteko batzarrean egoitza berriaren gaia lantzeko bertzte bi hilabeteko luzapena onartu zuten

TTIPI-TTAPA

Espero bezala, jendetsua izan zen berriz ere Baratzondon egindako bilkura, bazkidegoaren erditsua bertaratu baitzen. Lau ordu eta erdi luze joan ziren informazio-zabaltze, eztabaida eta bozketak burutu zirenerako, inoiz elkartean izan den biltzarrik luzeena segur aski. Halaxekoa eskatzen zuten gai-zerrendak.

Ez zen anitzik luzatu batzordea urteko kontu, aktibitate eta bertzelakoen berri emate-rakoan, konforme agertu zen jendea emandako informazioarekin. Gai mamitsuak ondotik jorratu ziren. Araudi berriaren proposamenaren eztabaidan, bertze xehetasun batzuk egokitu baziren ere, bi lekutan kateatu zen eztabaida: elkartearen zuzendaritza eta elkartearen zuzendaritza. Elkartearen zuzendaritza eta elkartearen zuzendaritza. Elkartearen zuzendaritza eta elkartearen zuzendaritza.

Egoitza berriari buruzko hausnarketa gibelatzeko eskatuz bazkide talde batek

emandako idatzia irakurri zuen ondotik batzordeak, bertze aukera batzuk lantzeko beharra eta epeak luzatzeko eskatuz. Bozketaren proposatu zuen batzordeak eta bertzte bi hilabeteko luzapena onartu zuten bazkideek aukera berriak aurkezteko, zehatzak eta landuak. Aitzinetik, zenbait argibide eman zituen alkateak, emandako urratsei buruz euren iritzia zein den adieraziz.

Batzordearen erdia berritu zen azkenik: Leire Arretxea izanen da lehendakariordea Leire Tabernaren ordeaz; Beñat Txoperena idazkaria, Adur Yanciren lekua hartuz; Salba Lizardi, Eli Urbistondo eta Izaskun Sein sartuko dira, berriz, Lourdes Etxeberria, Ana Loiarde eta Eneko Telletxearen lekuan, bokal gisa.

Inauteriak Baratzondon

Otsailaren 23rako inaute-bazkaria antolatu dute Baratzondo Elkarteko bazkideak. 14:00etan izanen da otordua eta ekitaldira joateko otsailaren 15a baino lehen eman beharko da izena.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joxelu Irazoki bikain rallyetan

Aspalditik dabil Joxelu Irazoki errepedeko rallyen munduan sartuta, Joseba Beola gidariarekin. Bat ez bertze, Nafarroako 2018ko lasterketa guziaz irabazi dituzte. Urte bikaina osatu dute biok. Iker Sein gidariak ere Irurtzun eta Malerrekako lasterketak irabazi zituen formula librean.



OSKAR TXOPERENA

Korrika ate joka

Heldu den apirilaren 8an pasatuko da Korrika Igantzitik, 04:00 aldera. Beran barrena pasatuko da Iparraldeko itzuliaren ondotik eta Lesakatik Igantzira Piedadeko gainetik etorriko da. 1997ko argazkian eskolak antolatutako Korrika tikiak ageri da.



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN



www.logurak.com



gaueko konfort-kuxina



Centro Prim



regina tolosaechepare



· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK



· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA



JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

IGANTZI inauteriak 2019



egitaraua

Otsailak 22, ortziralea

10:00 aldera Berrizaun auzotik hasita, etxez etxe eta baserriz baserri **eskean** ibiliko dira gazteak musikariek. Herrira bidean, bidegurutze aldeko etxeetara bisita egingen dute eta gero, Frain auzora joanen dira. **Bazkalondoan** herrian eta Sarrola eta Lasaga auzoetan **eskean** ibiliko dira gazteak. **Gauean afaria** egingen dute Biltoki elkartearen.

Otsailak 23, larunbata

08:00etan Mozorroak Irisarri auzora joanen dira. **Gero** Estongonaga, Elutseta, Unantu eta Piedadeko auzoetan ibiliko dira. **17:00etan** haurrentzako berendua. Mozorrotzeko gaia piratak izanen da. **18:00etan** Indiana Jones erakustaldia. **Ondotik** diskofesta. **20:30ean** boletoen zozketa (Hilarion jatetxean bi lagunentzako otordua) eta bingoa (txorizoa eta urdaiazpikoa) plazan. **Gauean** afaria.

Otsailak 28, ortzeguna

Goizean hurren eskea. **Arratsaldean** berendua.

Martxoak 1, ortziralea

Eguerdian bazkaria eta eskolako hurren antzerkiak



lhauterietan,
otsailaren 23an irekita.



MENUAK - BAZKARIAK - AFARIAK
PIZZAK - BOKATAK

Karrika Nagusia, 14 - IGANTZI - ERRESERBAK: T. 666 455 124



IGANTZIKO UDALAK
inauteri zorionsuak
opa dizkizue igantziar
eta bisitari guztiei

ONGI PASA
INAUTERIAKI!

Ingurumen Zerbitzuak

ezpala

- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- MENDIETAKO DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA · T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com





Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

OKILA
zurgindegia

- tarimak, leihoak, atek, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein

Mikel Arburua

Ongi pasa inauteriak!

607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI

I.M. RRIXKO
IGELTSERITZA

IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
661 735 052 ARANTZA
ESTRUKTURAK · TEILATUAK · FATXADAK · ZAHAR BERRITZE LANAK

Gasa ongi pasa inauteriak!!
Ura Kalefakzioa

froling
Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
Tel.: 686 23 52 30
patximutu@hotmail.com
ERAKUSKETA: Bidasoa, 45 - BERA

ecoforest
markako pelletezko estufak

Burlada
JATETXEA

BEREZITASUNAK: Haragiak, Arrainak, Etxeko postreak

MENU BEREZIAK: Taldeak, mendizaleak, Jaunartzeak, Otorduak

T. 948 634 027 | www.restauranteburlada.com | ARANTZA

Luis Ibarra
Zurgin lanak orokorrean
636 701 204

ARMAIRUAK | LEIHOAK | ATEAK | TEILATUAK | TARIMA
PARKE FLOTANTEA | TEILATUEN ZAHARBERRITZEAK

Salbatore karrika, 28 - ARANTZA (Na)
ibarrazurgina@gmail.com

ilargi okindegia **LAPEZENA**
ongi pasa inauteriak!

Enkarguak 948 634 156 · ARANTZA

ARANTZA

inauteriak 2019



egitaraua

Otsailak 14, ortzeguna

09:00etan Mozorro Zurien gosaria Primi ostatuan. **Ondotik** eskolara bisita, bizkarrekoak paratzeko. **Segidan** bi taldetan banatuta Mozorro Zuriak lau baserri auzoetara joanen dira Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilariekin. **Egun osoan** baserriz baserri eskean ibiliko dira. **Arratsaldean** eskolan inauterietako besta. **Arratsean** Mozorro Zurien afaria Primi ostatuan.

Otsailak 15, ortziralea

Goizean Mozorro Zurien gosaria Primi ostatuan. **Ondotik** herrian barna etxez etxe ibiliko dira Mozorro Zuriak akordeoilariekin. **Eguerdian** Mozorro Zurien bazkaria Pabloenea jatetxean. **Egun osoan** eskolako neska-mutikoak puxka-puxka baserriz baserri eta etxez etxe ibiliko dira. **Arratsean** bertso-afaria eta Emakumeen Afaria Aterpean Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikanorekin. **Gauerditik aitzinera** dantzaldia Beñat eta Fernandorekin.

Otsailak 16, larunbata

Eguerdian Mozorro Zurien bazkaria Burlada jatetxean. **17:00etan** haur, gazte eta heldu mozorrotuen kalejira. **Ondotik** txokolatada eta musika plazan. Ilunabarrean herri-kirol erakustaldia frontoian (Baztan-Bidasoa Herri Kirol Taldearen eskutik). **Arratsean** Mozorro Zurien afaria Ekaitza Elkartean. **Gauerditik aitzinera** Obaneuke taldearekin dantzaldia Go rapean.



«Inauterietatik gehien gustatzen zaidana herri guztiaren partzehartzea da»

ANE BEREAU ETXEBERRIA Arantzako Mozorro Zuria



«Neska herrikoa, alaia eta bertzei laguntzeko prest dagoena». Hala xe aurkeztu digu Ane Bereau Etxeberriak (Arantza, 2000) bere burua. Musika du zaletasun haundiena eta kontatu digunez, «ttikitatik trikitixa jotzen dut eta geroztik bertze musika-tresna pare bat jotzen ikasi dut».

Maite du bere herria, baina azken boladan etxetik urruti dabil. Non eta Madrilen, Terapia Okupazionala ikasten. «Nahiko pertsona enpatikoa naiz eta nire ikasketen bitartez gizaritari ahal den neurrian laguntzen saiatu nahi nuen eta gradu polita iruditu zitzaidan». Erran beharrik ez dago «aldaketa haundia» izan dela Arantzatik Madrilerara joatea, eta hala baieztatu digu berak ere: «Madrilen jendea lasterka bizi da, ondokoari zer gertatzen zaion ohartu gabe».

«Ttikitatik inauteri giroan haziak gara. Haur Hezkuntzatik inauterietako ohiturak jarraitu ditugu»

Besta bereziak

Sorterritik 500 bat kilometrotara badago ere, distantzia ez da oztopo izaten etxera bisitan etortzeko. «Hilabete behin gutti goiti-beheiti Arantzara etortzen naiz». Ate joka diren herriko inauterietan ere ez du hutsik eginen, bereziak direlako beretzat. «Ttiki-ttikitatik inauteri giroan haziak gara. Haur Hezkuntzatik inauterietako ohiturak jarraitu ditugu eta oroi-

tzapen hoberenak inauteriak hasten ziren momentuak dira, Mozorro Zuriak eskolara etortzen zirenekoak».

Arantzako eskolan zebilela, eskean ibiltzen zen, etxez etxe eta baserri baserri, trikitixa hartuta. «Urteko egun berezienak ziren», dio. «Bi egun oso lagunartean pasatzen genituen eta giro hagitz polita sortzen zen bai lagunekin baita herriko jendearekin ere». Herriko eskolatik atera zenean, ordea, inauteriak bertze modu batera ospatzea tokatu zitzaion. «Inauteriak ospatzeko larunbata bakarrik izaten genuen eta nahiko motz egiten zitzai-gun». Orain, ordea, inauteriak gehiago aprobetxatzeko alderdia egiten du, ttikia zela miresten zituen pertsonaia haietako bat baita orain bera: Mozorro Zuria.

Hirugarrenez Mozorro Zuri

«Aurten hirugarren urtea» izanen du Mozorro Zuri eta «hagitz esperientzia ona» dela onartu digu: «adina alde batera utzita, denak batera egoten gara». Bere hitzetan, Mozorro Zuri atera ala ez, inauteriak «aunitz» aldatzen dira. Eta gaineratu digunez, «inauteriak ongi aprobetxatzen dituztenak puxka-puxka ibiltzen diren haurrak eta Mozorro Zuriak dira. Tarte horretan inauteriak ez dira berdin bizitzen».

Mozorro Zuriatzat «egunik bereziena ortzeguna» dela adierazi digu Bereauk: «inauteriak orduan hasten direlako eta baserri baserri ibiltzen garelako». Hala ere, inauterietatik «gehien» gustatzen zaiona «herri guztiaren partzehartzea» omen da: «denoi esker, inauteriak gozatzeko aukera dugu».

Inauteriak ortzegunetik larunbatera izaten dira Arantzán, baina ez dira hiru egunetara mugatzen Mozorro Zuriak. «Inauterien ondotik kontuen afaria eta bertze hainbat afera izaten dira Mozorro Zuriaren artean. Beraz, aste pare batez luzatzen dugu ospakizuna». Eta gero gerokoak. Orain egutegian gorritz seinatua izanen duen otsailaren 14a noiz ailegatuko esperoan egonen da, eta bera bezala, arantzar gehienak. Berearen irudiko, «galdu ezin den plana delako».

PABLOENEA

- KARTA
- MENUA
- PLATER KONBINATUAK
- BOKADILLOAK
- HANBURGESAK
- ETXEKO POSTREAK

www.pabloenea.com
Goiko kalea, 5 • ARANTZA • 948 634 077

PRIMI ostatua

ongi pasa inauteriak!
Tel. 948 634 052
Goiko karrika, 7 • ARANTZA

ongi pasa inauteriak!

A

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net



V. ARGAZKI LEHIAKETA

erran.eus atarian

erran.eus
Mendialdeko Albisteak

Gaia: **ESKUALDEKO INAUTERIAK**



Argazkia: "Ikusiz ikasi" - Juan Carlos Olaetxea

Informazio +
erran.eus



OINARRIAK

1. **TTIPI-TTAPA** eta **XORROXIN** zabaltzen diren eremuetan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte har dezake.
2. Argazkiak 2019ko inauterietan ateratakoak izanen dira (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak mugikor, tablet edo argazki kamerarekin ateratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertuko ditugu).
4. Argazkiak **ERRAN.EUS** artxiboan altxatuko ditugu eta guretzat gordeko dugu jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak **ERRAN.EUS** atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko du parte-hartzaileak.

EPEAK:

- Argazkiak bidaltzeko epea: urtarrilaren 20tik martxoaren 22ra.
- **ERRAN.EUS**eko erabiltzaileen saria emateko **bozketa fasea**: martxoaren 27tik apirilaren 12ra.
- **Irabazleak**: **ERRAN.EUS** atarian jakinaraziko ditugu apirilaren 15ean.
- **Sari-banaketa**: maiatzean.

Animatu!

SARIAK

EPAIMAHAIAREN SARIA:

NEKATUR BONO ORLEGIA
2 lagunendako 2 gau eta 2 gosari



NEKATUR NEKAZALTURISMOA
ELKARTEA
Tel: 943 327 090
www.nekatur.net



ERABILTZAILEEN SARIA:

ELGORRIAGAKO BAINUETXEAN
2 lagunendako zirkuitua + otordua



HOTEL BALNEARIO ELGORRIAGA
Errotaldea, Elgorriaga
Tel: 948 45 60 45
www.sanvirilahoteles.com/
hotel-balneario-elgorriaga/



PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN:

ELBETEKO POSADAN
2 lagunendako otordua



ELBETEKO POSADA
Nagusia, 1 ELBETE
Tel: 948 581 519
www.posadaelbete.com/eu





Iparragirre eta Apezetxea herritarrak duela bi urteko mendi lasterketan.

Hirugarren mendi lasterketa martxoaren 31n

Parte hartu nahi dutenek www.kirolprobak.com atarian eman beharko dute izena

NEREA ALTZURI

Gainean dugu aurtengo edizioa. Hirugarrena da eta mendi lasterketaren mundua gogokoa dutenek agendan borobiltzeko moduko eguna.

Heldu den martxoaren 31n, Arantzako Mendi Lasterketa antolatu du Ekaitza Elkarteak. Herriko plazatik abiatu eta Zepuru, Ilurdi, Ekaitza, Ibintza eta Oilargata gainak igaro eta herria izanen du helmuga 20 kilometroko distantzia eta 1.300 metroko malda duen lasterkaldiak.

Emakumezko eta gizonezkoetan hiru sari banatuko

dituzte: lehenbizikoentzat txapela eta 120na euro; bigarren ailegatzen direnentzat 80na euroko saria eta hirugarren lasterkalarientzat 50na euro. Ekaitzatik pasatzen den lehen bortziriarrari Xabier Zubieta saria emanen diote.

Lasterketa 09:30ean abiatuko da etasari banaketa 13:30ean izanen da. Dorsalak, berriz, egun berean, 08:00etatik 09:00etara hartu beharko dituzte.

Izena emateko epea irekia dago eta interesa dutenek www.kirolprobak.com atarian egin beharko dute.

Inauteriak direla eta otsailaren 15a besta-eguna izanen dute eskolan

N. ALTZURI

Otsailaren 14an hasiko diren inauteriei begira egonen dira gaurgero herritarrak, eta eskolan ere prest dira ospakizunetarako. Otsailaren 14an mozorro besta egingen dute eta otsailaren 15a jai izanen dute. Xehetasunak 18. orrialdean.

Eskolako kontuekin segituz, ortzirale honetan bukatuko da aurrematrikulazioa. Heldu den ikasturterako hiru urteko bortz haur hastea aurreikusitako dute.

Bertzalde, Arantzako eta Etxalarko eskoletako irakasleak *Emozio hezkuntza, gelako ga-*

tazkak nola konpondu ikastaroa egiten dira Etxalarren, Donna Apellanizekin. Eta bizikidetzak aldetik, bai irakasleak eta bai ikasleak ere patioako arauak berrikusten ari direla adierazi dute eskolatik.

Gurasoak, berriz, Igantzako gurasoekin batera, Miren Camison adituak gidatuta, guraso eskolarekin hasi ziren urtarilaren 21ean. Ekainera arte, hilabete saio bat egingen dute, Arantzako eta Igantzako, txandaka. Lehenbizikoa Arantzako egin zuten eta hurrengo otsailaren 18an izanen dute Igantzako.

1960an 13 urteko herritar bati hartutako lekukotza liburuan bildua

N. ALZURI

Nikolas Alzola Gerediaga idazleak *Euskaraz Irunen barren* liburua argitaratu zuen 1959-1961 bitartean *Bidasoa* aldizkarian argitaratu zituzten argitalpenak bilduz. Tartean, 1960an *Aranatz erri aundiya* da izenburupean jasotako F. L.A. 13 urteko arantzarrari jasotako hau. Honela dio idatziak: *Aranatz erri aundiya da. Lauten ogei baserri battu. Eliz ttikiya du. Mutikuri eta neskari eskola erakusteko battu mastru eta maestra. Mastrak eztaki uskaraz. Mastruk itz*



battuk badazki. Erretore jaunak izena du don Matias. Erretore jaunna zarra da. Itxe battutan ardiyak battuzte. Baserri itxe guzitan beiak badire. Zerriyak ere bai. Olluk ere bai.

BEROPEL
 egurrezko pelletak
 ECHEVESTE HNOS. SL
 T. 948 637 232 • 618 264 654
 31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
 info@echevestehermanos.com
 www.echevestehermanos.com

K SAT
 TELEKOMUNIKAZIOAK
 ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
 T. 637 40 86 40 • 31780 BERA
 andonimatzako@gmail.com

LABE ZAR
 Astelehenerdik ortziralerara:
 07:15etik aitzinera
 Larunbata eta igandea:
 08:00etatik aitzinera
 948 631 076 • BERA

Jauzena
 Denda, 948 631 217
 T. 630 136 863
 Julio Caro Baroja, 6 - BERA
 jauzenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
 Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
 Antenak, satellite bidezko instalazioak

Nafarroako Bertsolari Txapelketa abiatuko da larunbat honetan

Final-laurdenetako saioak Urdazubin eta Iruritan (hilaren 10 eta 16an) eta azken finalurrekoa martxoaren 10ean Lesakan

TTIPI-TTAPA

Hastear da 2019ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Otsailaren 9an abiatuko da Tuteran, eta martxoaren 23an bukatuko da, Iruñeko Anaitasuna kiroldegiko finalean. Tartean, zortzi saio izanen dira, bertze horrenbertze herrietan. Guztira, lau final-laurden, hiru finalurreko eta finala izanen ditu 44. Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Tuteratik Urdazubira (igande honetan), Iruritatik (hilaren 16an) Lizarrara, Atarrabiatik Etxarri Aranzera eta Lesakatik (martxoaren 10ean azken finalurrekoa) Iruñera, Nafarroaren berdeak, horiak eta gorriak zeharkatuko ditu.

Urtarrilaren 26an aurkeztu zuten txapelketa Barañainen, Nafarroako Bertsozale Elkarrekin egindako urteroko batzar nagusiaren ondotik. Txapelketan ariko diren bertsolari, epaile, gai-jartzaile eta antolatzaile andana bildu ziren aurkezpen argazkian.

Guztira, 30 bertsolarik eman dute izena aurtengo txapelketan. Lehen aldiz parte har-

tzen zuten seirek, duela bi urteko sailkapeneko azken seiekin batera, aurre-kanporaketak jokatu zituzten urtarrian, eta horren ondotik bidean gelditu ziren sei bertsolari. Horrenbertzez, 24 izanen dira Tuteran hasiko den ibilbidean. Martxoaren 23ra arte, zortzi saiotan ariko dira, Nafarroako geografia anitzean barrena. Iruñeko Anaitasuna kiroldegiko finalean itsasoratuko dira bide horretako urak. Bertsolariekin batera, zazpi epaileko taldeak, hamabost gai-jartzailek eta hamamaka laguntzailekeginen dute posible egitasmoa.

Nafarroako euskal kulturaren erreferentzia

Urteak joan urteak etorri, Nafarroako euskal kulturaren erreferentzia nagusietakoa bihurtu da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Baina ez da bat-bateko lorea. Txapelketa urtean zehar egiten den lan isilaren fruitu da, bertsolaritza transmititzeko alorrean egindako lan eskergaren ondorio zuzena. Bide horretan,



Urtarrilaren 26an aurkeztu zuten txapelketa Barañainen.

aipatzekoa da *Bertsolaritza Irakaskuntzan* egitasmoa, Nafarroako Bertsozale Elkarrekin Nafarroako Gobernuaren eta tokian tokiko udal eta mankomunitateen laguntzarekin antolatua, urtero 2.400 ikasle baino gehiagorengana iristen dena, eskola orduetan bertsogintza eta ahozkotasuna landu dezaten. Era berean, ezin ahaztu Bertso Eskolen sarea, herri eta auzoetako transmisiorako gune biziak biltzen dituen. Azkenik, aisialdiaren eremuan antolatutako egitasmoek osatzen dute transmisioaren alorra.

Txapelketa, beraz, bertsogintzaren eta euskararen aldeko lan horri bultzada emateko aukera ederra da. Nafarroako bertsolariei ikusgarritasuna emanez, bertsogintza sustatu eta gizartean ezagutarazteko aukera eman duen egitasmoa martxan da. Gozatzeko unea iritsi da.

FINAL-LAURDENAK

Tutera, otsailak 9

Eneko Fernandez, Alazne Untxalo, Aimar Karrika, Mikel Lasarte, Joana Ziganda eta Saats Karasatorre.

Urdazubi, otsailak 10

Iban Garro, Iker Gorosterrazu, Julio Soto gaur egungo txapelduna, Saioa Alkaiza, Irati Majuelo eta Sahats Aleman.

Irurita, otsailak 16

Xabi Maia, Joanes Illarregi, Xabat Illarregi, Xabier Terreros, Patxi Castillo eta Endika Legarra.

Lizarra, otsailak 17

Julen Zelaieta, Josu Sanjurjo, Amaia Elizagoien, Diego Riaño, Eneko Lazkoz eta Sarai Robles.

Lehen jaunartze eguna

Menu ezberdinak
Haurrentzako animazioa

Bazkal ondoren haurrek jolastu, dantzatu eta ongi pasatzeko espazio berezia dugu. **animatzaile** baten eskutik. Eguraldiak ez badu laguntzen egokitutako leku estalia dugu.



ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

KONTSULTATU GURE ESKAINTZAK




Bidasoa kristaldegian esperientzia eta produktuetan eskaintza zabala dugu. **1958tik ari gara lanean**, eta orduz ge-roztik, **era guztietako beirak jartzen ditugu: obretakoak, lokal komertzialetakoak, etxeetakoak...** Dekorazio lanak ere egiten ditugu eta horrez gain, **koadroei markoak** jartzen dizkiegu.

«Urte horietan guztietan,
Bidasoko eskualde osoan egin dugu lan».

Irun eta Hondarribiatik hasi, eta Elizondoraino bitarte, Bera, Lesaka, Etxalar, Doneztebe... eta beste hainbat herritan ibili gara.


GAUR EGUN, BATEZ ERE DEKORAZIO ETA ZAHARBERRITZE-LANAK EGITEN DITUGU, BAI ETXEETAN, BAITA LOKAL PUBLIKO ETA KOMERTZIALETAN ERE:

- Duxetako manparak
- Kristalezko barandak
- Ate korrederak
- Sukaldeko aurrealdeak
- Koadroentzako markoak
- Ispiluak
- Beira dekoratiboak



ESKANTZA ZABALA DUGU!

Zure etxean edo lokalean gure beharra baduzu, ez izan zalantzarik, eta zatoz gu ezagutzera. Behar duzun horixe eskainiko dizugu!



Irudimena eta giro ederra euriari aurre egiteko inauterietan

Emakumeen afarian 99 lagun bildu ziren eta igandeko desfilean ere denetariko mozorroak eta orga atera zituzten

MAIDER PETRIRENA

Inauteri euritsuak izan dira aurtengoak, eta eguraldiak sobera lagundu ez badu ere, kolorez beteta eta giroz ederrean joan dira. Urtarrilaren 25ean, ortzirale goizean herriko 25 gaztek eman zioten inauteriei hasiera, Ariztigain kanpinean egin zuten gosari ederrarekin. Ondotik, bi taldetan banatuta ibili ziren Joxe Angel eta Modesto akordeoilariekin. Bazkariak Exkenekoborda baserrian eta Bustitz ostatuan egin zituzten.

Arratsaldean, berriz, eskolako txanda izan zen. Bertze urte batez emanaldi bikaina prestatua zuten, baina eguraldiak lagundu ez zuenez, frontoian eskaini zuten. Kaldereeroz jantzita inauteriak iragarri zituzten. Ondotik, txokolate beroa hartu eta Agerralde akordeoilariekin dantzan ibiltzeko aukera izan zuten.

la ehun emakumezko

Gauean, Ulibeltzak elkarteak emakumez bete zen. 99 emakumezko gozatu zuten beraien 25. afariaz, eta giro ederra izan zuten. Otordu berezia izan zen, 25 urteotako argazkiekin egindako oroigarria, bideoa eta bertze detailak ere izan baitziren. Txapak ere banatu zituzten, zozketarako zenbakiekin eta Donamariako Bentetan bilagunendako bazkaria Beatriz Sanzberrori tokatu zitzaion. Antolakuntzaren lana ere azpimarratzekoa da.

Larunbatean eguraldia lagun

Ortziraleko egun haundiaren ondotik, larunbatean, eguraldia lagun, gazteak herrian

barna ibili ziren. Arratsaldean, Ulibeltzak elkarteak diskofesta izan zen eta gauean gazteek Elortxurina afaldu zuten. Gauean besta giroak segitu zuen.

Igandea euria goian-behean

Igandean, goizetik zerura begira hasi ziren herritarrak, iragarritakoa ez betetzeko eskatuz. Baina aurtengoan ez zen hala izan, eta euri eta kazkabar erauntsien eta ateraldien artean egin zen orga desfilea. Urtero bezala, tortilla, salda, taloa eta gazta, ardoa eta gaztainak banatzen dituzten orgek ireki zuten desfilea. Ondotik, txinatarrak agertu ziren urte hasiera dragoi eta guzti ospatuz, Zugarramurdiko sorginak ere ez ziren urruti, zombien ezkontza bat ere bazen baita ondoko karrozak ere: Sunbilla piko eta pala, Padelen etxea, Japoniako geishak eta sumo borrokalariak, kaldereroak, *Eutsi bordari, sasik hartu antzinin*, zentral nuklearreko jendea babestu zuen karroza, Adams familia eta Bob esponja eta marrazki bizidunen orga.

Zozketak

Euro baten truke boletoak ere saldu zituzten. Baina eguraldia tarteko bertze urteetan baino jende guttiago hurbildu zenez, ez ziren egindako 9.000 boletoak saldu. Desfilea akitutakoan zozketak egin ziren: magra bat Jorge Bereauri tokatu zitzaion, bertzea Diego Jorajuriari eta bildotsa Iñigo Iruretagoienari. Ondotik, 80 lagun bildu ziren elkarteak bazkaltzeko. Arratsaldean, inauteriak agurtzeko, Santxotenarekin dantzaldia izan zen.



Irudi ederrak utzi dituzte inauteriek. AINTZANE ARRETXEIA ETA MAIDER PETRIRENA



Erreka dantza taldekoak eta Mendi abesbatzakoak oholtzan izanen dira.

'Hego haizeak Ipar doinuak' emanaldia otsailaren 16an

19:30ean dute hitzordua Ezkurra pilotalekuan eta sarrera sei euro ordaindu beharko da

MARGA ERDOZAIN

Pasa den udazkenean Zugarramurdiko lezeetan egindako kontzertua herrian izanen da ikusgai otsailaren 16an, larunbatean. 19:30ean hasiko da ikuskizuna, herriko Ezkurra pilotalekuan.

Parte-hatzaileak

Erreka dantza-taldeko dantzariekin eta Mendi abesbatza eta Mendi Tiki abesbatzako kideekin batera, Donostiako Udalaren txistulari taldea, Guy Saldubehere, Pauline eta Juliette eta Jon Itçaina goitituko dira oholtzara. Guztien lana-

ren uzta bilduko dute. Emanaldia ETBko kamarek grabatuko dute.

Elkarlana

Emanaldia elkarlanean antolatu dute. Azpimarratzekoa da hori gauzatu ahal izateko ETBk egin duen ekarpena eta Udalak emandako 1.000 euroko diru-laguntza.

Sarrerak

Sarrerak sei eurotan salduko dituzte. Horietatik bortsu euro Mendi abesbatza eta Erreka Dantza taldearentzat izanen dira.

Udalak MPS elkarteak diruz lagunduko du emanalditik jasotako diruarekin

M.ERDOZAIN

Mucopolisacaridosis delako (MPS) gaitz arraroaren elkarrekin lagunduko du Udalak, otsailaren 16an eskainiko duten *Hego haizeak Ipar doinuak* emanalditik jasotako diruarekin. Horrela bada, sarrera bakoitzetatik euro bat ekimen

horretarako bideratuko dute. Gogoratu behar da aurtengo Herriko Etxea elkartasun erronka babesten ari dela. Era berean, bai urtean zehar antolatutako zinema emanaldietako dirua baita liburu azokan bildutakoa ere elkarteari emanen diola adierazi dute.

Abian da musikoterapia ikastaroa

Otsailaren 1ean, ortziralean, abiatu zen emakumezkoen bideratutako musikoterapia ikastaroa. Guztira hamar saio izanen dira eta Aste Santuan akituko da. Saio guztiak ortziralean eta Herriko Ostatuan edo Herrigunean burutuko dira, 20:00etatik 21:45era. Haizea Loira musikoterapeutak zuzentzen du tailerra eta horren helburua «autoezagutza bultzatzea, norbere potentziala garatzea eta jabekuntza prozesua sustatzea» da. Aipatu behar da Udalak diruz lagundutako ikastaroa dela.

Sagardotegira joateko autobusa antolatu dute

Eskualdeko herritarrak sagardotegiz sagardotegi dabilta. Doneztebarrek ere izanen dute aukerarik. Otsailaren 17an, igandean, Zabala sagardotegira joateko autobusa antolatu dute Arocena ostatuok. Autobusa herritik 11:30ean abiatuko da. Hondarribin geldituko dira eguerdira arte eta 14:00etan Adunarantz joanen dira, sagardotegira. Interesatu denek Arocena ostatuan eman dezakete izena. Otsailaren 9a, heldu den larunbatean, izanen da azken eguna. 50 euro ordaindu beharko dira.

Liburutegiko ateak irekita daude dagoeneko

M. ERDOZAIN

Otsailaren 4an, astelehenean, liburutegiko ateak ireki zituzten. Digitalizazio lanen %60a egin dute eta gainerako %40a, aurtengo egitekoa dute.

Irakurle-gelakoak digitalizatuak

Irakurle gelan dauden liburu guztiak digitalizatuak daude: narratiba, poesia, antzerkia, komikiak, haur eta gazteen liburuak... baita DVDak ere. Osotara 6.000 ale inguru dira digitalizazio-sisteman sartu dituztenak.



Liburutegian, ipuinen txokoa.

Ikasketa-gelakoak bidean

Ikasketa-gelako aleak, berriz, (guti goiti-beheiti 4.000 bat ale) CDU sailkapenari dagozkie eta horien digitalizazioa egiten hasiak dira.

Igandean zine emanaldi bikoitza izanen dute

Otsailaren 10ean, heldu den igandean, zine emanaldi bikoitza izanen dute herriko zinemak. Oraingo honetan bi filmak euskaraz izanen dira. 16:30ean hasiko dira eta *Ban-piro txikia* eta *Oreina* eskainiko dituzte, hurrenez hurren.



ITUREN/AURTITZ/ZUBIETA

Joaldun eta mozorroak euripean ederki ibili dira

Inauteri astelehenean Iturenen 74 joaldun bildu ziren; asteartean Zubietan, berriz, 72

TTIPI-TTAPA

Herritarrak inauteriz blai ibili ziren urtarril hondarrean. Euriak ez zituen geldiarazi. Batzuek joareak jantzi zituzten; bertzeek etxeko lau trapu zahar... Ipurdia bistan zuela atera zenik ere izan zen.

Joaldunak goiz-goizetik

Egunero joare hotsekin ernatu ziren, gosaltzeko etxez etxe puskak biltzen ibili baitziren batean zein bertzean. Indarrak hartuta, astelehenean zubietarrak eta aurtiztarrak Iturenera joan ziren. Guztira 74 joaldunek girotu zituzten Iturengo karrikak: herriko 30, Zubietako 26 eta Aurtitzeko 18 bildu ziren plazan. Laxaro Erregerena iturendarrak 50. urtez jantzi zituen joareak. Asteartean, iturendarrek zubietarrei bisita itzuli zieten.

Guztira 72 joaldun bildu ziren Zubietan: herriko 38, Aurtitzko 12 eta Iturengo 22.

Eguraldia ez zuten lagun izan eta, ondorioz, zubietarrek ez zuten ttuntturrorik jantzi, horren ordez boneta jantzi zuten: «garai batean euria egiten zuenean boneta jantzen zen, ttuntturroa ez hondatze-ko».

Mozorroak

Mozorroen artean gisa guztietakoak ikusi ahal izan ziren: batzuek garai bateko kontrabandoa islatu zuten, bertzeek sagardotegi parodikoa egin zuten, euri uretan plisti-plasta ibili zirenak, traste zaharrak plazaratu zituztenak... ere ez ziren falta izan. Joaldun eta mozorro artean, «berdintasuna» aldarrikatzen zuen kartelen bat ikusi ahal izan zen.



Joaldun eta mozorroek, ederki bete zuten beraien lana. IZASKUN ZUBIALDE





Herriko haurrek eta gaztetxoek Herriko Ostatuan bazkalduko dute. ARTXIBOKOA

Otsailaren 16an inauteriak Beintza-Labaienen

Eguerdian haurrendako bazkaria izanen da Herriko Ostatuan eta iluntzean afaria eginen dute Iturrondo elkartearen

A. ITURRALDE

Inauteriak ate joka dituzte beintza-labaiendarrek. Hirugarren larunbatean, otsailaren 16an, ospatuko dituzte aurten. Herriko gazte eta helduek Iturrondo elkartearen afalduz eginen diete keinu. Dena dela, gainontzeko herritarrentzat ere izanen da jarduerarik.

Haurrek bazkaria

Egun berean, eguerdian, haurren eta gaztetxoaren txanda izanen da. Herriko Ostatuan bilduko dira eta bertan bazkalduko dute.

Antzina lauzpabost egun

Gaur, egun bakarrean ospatzen duten ospakizun hori garai

batean lauzpabost egunekoa zen.

Izan ere, orduan herriko gazte gehienek mendian lan egiten zuten eta negua etxean pasa ohi zuten. Hori horrela, inauteriak lauzpabost egunetara ospatzen zituzten.

Egun horietan ekitaldi dezente izaten zituzten. Karrozak ez ezik, joaldunak eta moztarrok karriketara barna ibiltzen ziren eta plazan aizkora apustuak jokatzen zituzten.

'Ur handitan' saiorako grabaketak Beintza-Labaienen

Ur handitan saiorako grabaketak egiten izan dira herrian. Herrien hustutzea izan zuten hizpide eta herriko hainbat lagun elkarriketatu zituzten -gazte zein adinekoak- denda, ostatuan eta beste txokoetan. ETBn otsail hondarrean edo martxoan emanen dute.

Komunikazioari buruzko hitzaldia Donezteben

Otsailaren 21ean, ortzegunetan, *Komunikazioa jarrera aldaketan aurrean erabili beharretako tresna* hitzaldia eskainiko dute Malerreka Mankomunitatearen egoitzan. 16:30ean zehaztu dute hitzordua eta tailerra egin ahal izateko 8-10 lagun behar dira.



ARTXIBOA

Otsailaren 9an inauteriak Donamarian

Inauterietako ospakizunak egun bakarera mugatuko dituzte aurten Donamarian eta larunbat honetan, otsailak 9, ospatuko dituzte. Goizean gazteak etxe ibiliko dira herriko trikitilariekin. Gauean, Herriko Ostatuan afaria eginen dute eta ondotik, Ander DJak musika paratuko du.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Baztan-Bidasoa eskualdeko Nasuvinsaren giza-taldea osatzen dutenak. UTZITAKO ARGAZKIA

Zaharberritzeko asmoak aurrez aurre Donezteben

Nasuvinsak Baztan-Bidasoan duen bulegoa Nafarroako Gobernuak bultzatzen dituen politika urbanistikoen kaleko erreferentzia bihurtu da, eta horri esker, landa eremuko etxebizitza eta eraikinak zaharberritu egiten dira, gure herri eta auzoak suspertuz

NASUVINSA

Eraikin edo etxebizitza bat zaharberritzea prozesu tekniko konplexua izan daitekeen bezala, egin beharreko trami-te burokratikoak ere nahasiak gerta daitezke. Baina Doneztebeko Merkatarien Karrikako 6. zenbakian dagoen Baztan-Bidasoko Nasuvinsaren bulegoko profesionalak zurekin daude, zuri laguntzeko eta zuri aholkatzeko, eta zure bizitza eraldatuko duen proiektu arkitektoniko eta konstruktiboa bukatu ahal izateko tramiteak egiteko. Nasuvinsaren eskualdeko bulegoan dagoen arkitekto, aparejadore eta admi-

nistrari taldeak aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen du eta bizigarritasun-zedula tramitatzear arduratzen da, baita Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zerbitzuak eskaintzen dituen laguntza eta diru-laguntza guztiez ere.

%50a arteko diru-laguntzak

Zaharberritzeko diru-laguntzak aurrekontuaren %5 eta %50 artekoak izan daitezke, eta obrak hasi baino lehenago ematen dira. Etxebizitzaren antzinatasunaren, familiaren diru-sarreraren edo egin beharreko lanaren ezaugarrien araberakoak izaten dira.

Diru-laguntzak beraien etxebizitzetan berritze-lanak egin nahi dituzten partikularrei zuzendutakoak dira. Baita oztopo arkitektonikoak kendu edo eraginkortasun energetikoarekin edo eraikinetako ingurutzaila termikoekin lotutako proiektuak egin nahi dituzten auzotarren komunitateei zuzendutakoak ere. Etxebizitza

NASUVINSA LAGUNTZA ESKAERAK EGITEAZ ARDURATZEN DA

berritu eta gero errentan eman nahi duten sustatzaileentzako ere badira diru-laguntzak.

Aldez aurretik, hainbat baldintza bete behar dira. Bertzeak bertze, eraikinak 25 urte baino gehiago izan behar ditu, etxebizitzak ohiko bizilekua izan behar du eta aurrekontuak 2.000 eurotik goitikoak izan behar du (BEZa kontuan hartu gabe).

Bertze zerbitzuak

Hemendik aitzinera Nasuvinsak bultzatzen eta kudeatzen duen gazte eta familia ahulentzako etxebizitza publikoen errentaren inguruan aholkularitza zerbitzua eskainiko dute Doneztebeko bulegoan. Gisa bertsuan, Alokairu Poltsaren inguruko aholkularitza eskainiko dute, hau da, hutsik dauden etxebizitzak eskuratu eta alokairu babestuan ematen dituen programa. Horrez gain, bulego honek udal eta tokiko erakundeei hirigintzako aholkularitza zerbitzua eskaintzen die.

«Etxebizitza eta hirigintza ere aldaketarako palanka dira»

JOSE M^a AIERDI NASUVINSAKO ZUZENDARIA



Housing plana ardatz duen alokairua jartzea; edo herriak biziberritzeko etxebizitza eta eraikinak zaharberritzea dira» adierazi du Aierdik. «Etxebizitza politikak eta hirigintza landa-eremuetako aldaketa sozialerako palanka» direla uste du zuzendariak eta horretan Baztan-Bidasoan Nasuvinsak duen Doneztebeko bulegoak eginkizun garrantzitsua duela nabarmendu du.

Nasuvinsa sozietate publikoaren zuzendaritzara ailegatu zenetik, hau da, 2015eko urriaz geroztik, Nafarroako Gobernuak garatutako etxebizitza eta hirigintza alorreko politika publikoak sustatu eta kudeatu ditu Jose M^a Aierdik.

«Egungo lehentasunak etxebizitza eskubidea, ez negozioa, izatea; giza beharrak asebetetzeko *Social*



Doneztebeko bulegoaren ataria. UTZITAKO ARGAZKIA

Nasuvinsako bulegoen zerbitzuak



Merkatarien karrika 6 31740 DONEZTEBE | 948 45 61 03 | baztan-bidasoa@nasuvinsa.es



NORI

- Baztan-Bidasoa eskualdeko pertsona fisikoak
- Auzo komunitateak
- Alokairu etxebizitzaren sustatzaileak
- Eskualdeko udalak edo tokiko entitateak



ZAHARBERRITZERAKO LAGUNTZAK

- Etxebizitza eta eraikuntzen zaharberritzea
- Estaldura termikoaren hobekuntza
- Efizientzia energetikoaren hobekuntza
- Arkitektura oztopoak ezabatzea
- Igogailuak



GAINONTZEKO ZERBITZUAK

- Alokairuko etxebizitza publikoen sustapena
- Etxebizitza hutsen Alokairu Poltsa
- Hirigintza aholkularitza
- Lurraldeko garapen jasagarria



LAN TALDEA

- **BORJA IZAGIRRE** ARKITEKTOA
- **AINTZANE OIZ** ARKITEKTOA
- **ROBERTO PÉREZ** APAREJADOREA
- **PATXI IRIARTE** APAREJADOREA
- **ALVARO PINILLOS** ADMINISTRARIA
- **EDURNE HUITZI** ADMINISTRARIA

Epidemia mailara ailegatu da aurten gripea Nafarroan

Malerrekako Osasun Zentrotik hainbat gomendio luzatu dizkiete herritarrei, eritasun honi buruzko azalpenekin

TTIPI-TTAPA

Azken asteotan izugarri hazi da gripe kopurua. Nafarroako Gobernuak urte hasieran jakinarazi zuenez, gripea epidemiaren mailara ere iritsi da, 2018ko azken asteen, 100.000 biztaleko 41,3 kasu izan baitziren. Gripea tarteko, osasun zentroetako kontsultak ere betetzen ari dira, eta hori dela eta, Malerrekako Osasun Zentrotik hainbat gomendio luzatu dizkiete herritarrei.

Zer dira katarroa eta gripea?

Jakinarazi dutenez, «katarroa eritasun arin bat da», *Rinovirus* edo *Coronavirus* bezalako birusek sortua. «Gehienetan denbora guttiren buruan sendatzen da, arazorik gabe». Urtean bi-bortz katarroa izatea ohikoa omen da, «eta haurtzaroan gehiago».

Gripea ere birusbatek (*Virus Influenza*) sortutako eritasuna da. Arina dela eta denbora laburrean sendatu ohi deladiote, baina «kasu eta egoera ahuletan, hala nola, zaharretan, bi urtetik beherakoetan edo zenbait eritasunekin, la-

ria» izaten ahal dela ohartarazi dute, «bronkitisak edo pneumoniak eraginez». Katarroa ez bezala, «udazken-eguei lotutako eritasuna da gripea», adierazi dute.

Nola kutsatzen dira?

Eritasun horiek sortzen dituzten birusak ezta eta doministiku egitean botatako tantatxo bidez kutsatzen direladiote. «Horregatik, pertsona batetik bertzerahedatzen dira, baita birusez kutsatutako gauzak ukitu eta gero eskua ahora edo sudurrera eramanda ere». Sintomak agertu baino egun bat lehenagotik kutsatzen ahal omen dira birusak «eta zazpi egun ondotik ere bai, hau da, harrapatu zaituela jakin baino lehen eta eri zauden bitartean».

Zer egin katarro edo gripe baten aitzinean?

Aste batean edo bitan sendatu ohi dira, «antibiotiko beharrik gabe, pazientziari eta zenbait zainketari esker». Horretarako, hainbat aholku eman dituzte:



Birusak ezta eta errausin egitean botatako tantatxo bidez kutsatzen dira.

-Ez erre eta ez arnastu tabakoaren kea; ez ibili giro kargatuetan.

-Babestu hotzetik eta saihestu tenperaturaren gorabehera bortitzak.

-Atsedean hartu; behar izanez gero, ohean.

-Gose ez bazaude, hartu ura, fruta-zukuak, berdura-saldak eta infusioak.

-Buruko minez edo sukar handia bada, analgesiko-antitermikoekin aritzen ahal da. Ur epelean bustitako belaki batez larruazala igurtziz ere beheiti egiten du sukarrak, baina 38 graduz azpikoa bada hobe bere horretan uztea, defentsetan eragiten baitu.

-Ur lurruneke inhalazioak eta likidio ugari edateak hobeki arnasten eta mukiak kentzen laguntzen du. Haurrekin, hobe izan liteke sudur-zuloak serumez garbitzea.

-Ez hartu antibiotikorik medikuaren agindurik gabe, ez

baitute eraginik birusen kontra.

Eritasun horiek bertzeei ez kutsatzeko, berriz, eskuak maiz garbitu behar direla oroitarazi dute, «botatzeko diren musuzapiak erabili eta sudurra estali ezta eta doministiku egitean, eta gutti hurbildu gripearen aitzinean ahulagoak diren pertsonengana».

Nola hartu aitzin katarroari edo gripearri?

Erabateko prebentziorik ez dela dioten arren, ahalik eta bizimodu osasuntsuena izateko aholkatu dute, hartara, defentsa onak izateko. Horretarako, elikadura osasungarria jarraitzeko, ariketa fisikoa eguneroko egiteko eta gripearen aurkako txertoak hartzeko gomendatu dute, batez ere, 65 urtetik goitiko, eritasun kronikak dituztenei eta osasun arloko zaintzaile eta profesionalen.

Enpresa-erantzukizun sozialaren InnovaRSE 2018 zigilua jaso du Cedernak

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur Elkarteak, Nafarroako bertze 54 erakundeekin batera, enpresa-erantzukizun soziala era mailakatu aplikatzeari begira 2018an InnovaRSE metodologia ezarri izana aitortzen duen diploma jaso du. Cedernak 2019an,

erantzukizun soziala hobetzeko neurri zehatzak jasotzen dituen ekintza-plan bat definitu du eta Nafarroan halako jarduketaplan duen tokiko ekintza-talde bakarra da.

Europako Batzordeak sustatzen duen enpresa-erantzukizun soziala (EES) enpresa



kudeatzeko eredu berri bat da, erabakiak hartzeko proze-

suan ekonomian, gizarrean eta ingurumenean izanen duten eragina aintzat hartzen duena, ikuspegi estrategiko eta operatibo batetik.

Cederna Garalurek, lehenengo EES diagnostikoa 2017an egin zuen. 2018an, zazpi hobekuntza-neurri definitu ditu, 2019an garatu beharrekoak: bi alderdi ekonomikoan eta ingurumenean eta hiru arlo sozialean.



Solaslagunak Donostiako Bagera elkarteko mintzlagunekin batera egindako bisita gidatuan. UTZITAKO ARGAZKIA

Donostiara bisita egin dute Solaslagunek

Bagera elkarteko mintzlagunekin batera 'Euskararen Donostia' bisita gidatua egin zuten, giro ederrean

TTIPI-TTAPA

Bortzirriak, Baztan eta Male-rrekako Solaslagunak Donostiara joan ziren egun-pasa ilbeltzaren 26an. Beraiekin batera joan ziren Iruñerriko eta Hondarribiko mintzlagunak ere. Giro ederrean egin zuten Donostiarako bidea: batzuk kontu-kontari, bertzeak

kantuan... Trikitilariak ere bazituztenez, ez zuten asperetzeko astirik izan.

Donostiako Bagera elkarteko mintzlagunak zain zituzten Bulebarreko kioskoan, *Euskararen Donostia* bisita gidatua hasteko prest. Hala, kioskotik abiatuta, gida batek euskararekin lotura estua du-

ten Donostiako hainbat leku erakutsi zizkien: herriko etxea, Orixe ikastola eta Herri Irratia izandakoaren egoitza, bertzeak bertze. Bisita ongi bukatzeko, taldeko argazkia atera zuten. Hortik, batzuk Ordizia estatura joan ziren pote eta pintxo bana hartzera. Bertze batzuk, berriz, Kontxa aldera itzuli eta itsasoa ikusteko aprobetxatu zuten.

Arrats partean, etxera bueltatzeko tenorea ailegatu zen eta, egun-pasa polita egin ondotik, itzulerako bidea egin zuten autobusean. Solaslagunak egitasmotik mila esker eman nahi dizkiete «parte hartu zenuten guztiei eta bereziki Bagerako mintzlagunei, hain ongi hartu gintuztelako!».

Haur errefuxiatu sahararrak udan hartzeko familiak behar dituzte

TTIPI-TTAPA

Badira 30 urte baino gehiago euskal familiek, udako hila-beteetan, haur sahararrak euren etxeetan jasotzen dituztela. 2018ko udan 316 neska eta mutil saharar etorri ziren Euskal Herrira, eta, aurren, bertze horrenbertze etortzea nahi da. Horretarako, guttienez, 100 familia gehiago beharko dira.

Oporrak Bakean programa antolatzen duten elkarte eta udaletxeek euskal gizartea kontzientziatu eta egiten duten lana ezagutarazteko helburu duen kanpaina berria abiatu dute *Orain bi familia ditut: bat Saharan eta bestea Euskal Herrian* lelopean. Kanpainaren ordezkarien hitzetan, «esaldi horrek oso modu egokian laburtzen du programan parte hartzen duten neska eta mutilen esperientzia, baita horiek hartzen dituzten harreraren familiena ere». Horregatik Euskal Herriko familiak animatu nahi dituzte haur errefuxiatu sahararrak etxean hartzeko uda garaian.

Kanpainak ikus-entzunezko euskarriak ditu eta hainbat urtetan Euskal Herrira etorri diren haurren testigantzetan oinarritzen da. Testigantza horien bitartez, haien egonaldietatik gustukoen dituzten gauzak edo arreta gehien deitu diena kontatzen dute.

Haur saharar bat uda honean harreraren hartzeko interesa duten familia edo pertsonak dagokien elkarte edo udalarekin jar daitezke kontaktuan (<http://oporrakbakean.eus/nortzuk-gara/elkarteetaudalantolatzaileak/>), edo lurralde bakoitzeko pertsona ardura-dunarekin: 665 71 19 47 (Araba), 658 75 13 59 (Bizkaia), 696 01 47 86 (Gipuzkoa), 680 26 80 21 (Nafarroa).

Bidasoaren memoriari buruzko proiektu batek irabazi du Tene Mujika Saria

TTIPI-TTAPA

Eneko Aizpurua idazle lazkoatarrak irabazi du 2019ko Tene Mujika beka, Bidasoa ibaian gora egindako bidaia baten harira memoria kolektiboan lekua duten edo izan behar luketen hainbat istorio kontatzeko proiektu batekin. Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko proiektuak saritzen ditu Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolaturiko beka honek.

Bidasoa pasabide naturala da, baina baita bi estatu bereizten dituen muga ere, eta

horrek esanahi berezia eman dio historian zehar, hainbat gertakariaren lekuko eta kokaleku bihurtu baita. Horietako hainbat gogoratuko ditu egileak, oinez hainbat egunez egindako ibilbidean. Adibidez, Guardia Zibilak Intxaurren doko kuartelean heriotzaraino torturaturiko Mikel Zabalzaren gorpua Endarlatsan agertu zenekoa, edo handik zenbait urtetara ETAK paraje berean Eduardo Lopez polizia bonbabez hil zuenekoa; frankismo garaian pertsonen muga-igaroerak arriskutsua izan zen,



Eneko Aizpurua irabazi du saria.

eta ahalegin horretan bertako uretan itota hil omen ziren ehunka lagun, gehienak portugaldarrak; Pio Barojak eta Aitzolek gerra zibilaren hasieran Beratik Lesakara bidean topo egin zutenekoa kontatuko du, baita gerra zibil horretan inguru horretan gertatu ziren fusilamendu ugariak ere.

Herriz herriko bazkideen hamar besta otsailean

Asteburu honetan Iturenen bilduko dira, eta heldu denean Leitzan, Donezteben eta Beran

FERNANDO ETXEBERRIA

Otsailean sartu orduko herriz herriko bestekin hasiak dira Arkupeak elkarteko bazkideak, eta horien barne mus txapelketak jokatzeko ari dira.

Otsailean hasi eta martxoan gehiago

Otsailaren 3an, Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga, Arraioz, Oronoz, Oieregi, NARBARTETA eta Legasako bazkideak Legasan elkartu ziren. Egun berean Etxalarren eta Eratsunen ere hitzordua egin zuten.

Igande honetan, otsailak 10, Ituren, Zubieta eta Elgorriagako bazkideen txanda izanen da. Iturenen elkartuko dira. Otsailaren 14an hainbat herritako hitzordua eginen dituzte. Alde batetik, Larraun, Areso eta Leitzako bazkideak Leitzan bilduko dira; bertzetik,



Iaz Oronozen egindako besta. ARTXIBOA

Doneztebe, Donamaria, Gaztelu, Oiz eta Urrozko bazkideak Donezteben egin dute hitzordua eta Bera, Irun eta Iparraldekoek Irunen.

Otsailaren 21ean Baztangoi, Zugarramurdi eta Urdazubiko bazkideak elkartuko dira; otsailaren 24an Sunbillaokoek gauza bera eginen dute, baita Ezkurrakoek ere. Martxoan sartuta, berriz, Igantziko eta Lesakako bazkideak Igantzin biltzekoak dira.



Tolosan barna ibili ondotik, Urnietan bazkaldu zuten bazkideek. F. ETXEBERRIA

Jendetza bildu da Tolosara egindako urteko lehenbiziko irteeran

F. ETXEBERRIA

Bazkideen erantzun bikainarekin hasi ditu urteko ateraldiak Arkupeak-ek. Urtarrilaren 26an 266 bazkide joan ziren Tolosara antolatutako lehenbiziko irteeran. Larunbatetan azoka izaten da Gipuzkoako herri horretan, hiru gunetan. Bazkideek azoketan barna ibiltzeko aukera izan zuten. Ez hori bakarrik, Tolosa Kantari taldearen doinuak aditzeko aukera ere izan zuten. Hilabeteko azken larunbatetan egiten du hitzordua talde horrek, euskal kantak Tolosako karriketetan barna abesteko.

Nahi zuenak eurekin kantuan aritzeko aukera izan zuten.

Eguerdian, berriz, bazkideen bortz autobusak Urnietara joan ziren, Oinume sagardotegian bazkaltzeko. Musika ere izan zuten dantzan aritzeko.

Hurrengo hitzordua Madrilera, Toledora eta Segoviara izanen da. 64 lagunendako tokia eskaini zuten antolatzaileek eta berehala bete ziren guztiak. Aipatzekoa da, bertalde, joan den urteaz geroztik egun bakarreko ateraldietan ehun lagun baino gehiago apuntatzen direla.



FERNANDO ETXEBERRIA

Mendizaleak Lesakan aldean euri eta guzti

63 mendizalek izena emana bazuten ere, gripea eta eguraldi txarra tarteko, azkenean 58 lagunek parte hartu zuten Lesakan egin zuten mendi-ateraldian. Nabaz auzotik atera eta Agiñara joan ziren eta eguerdirako herrira jaitsi ziren. Kasinon bazkaldu ondotik, arratsaldean musika izan zuten Tomas eta Juanekin.

Langile bat berriz hartzea eskatuz greba egin dute

Legasako AMDS lantegiko greba egunek jarraipen zabala izan dute eta Lan Departamentuan elkarretaratzea egin dute

TTIPI-TTAPA

AMDS Arcelor lantegiko langileek hiru egunez egindako grebak jarraipen zabala izan du. Azken egunean, otsailaren 1ean, Nafarroako Gobernuko Lan Departamentuaren aitzinean elkarretaratzea ere egin zuten. Helburua urte hasieran kaleratutako langile bat berriro hartzea izan da. Proba tartea gaingitu ez zuela argudiatu du zuzendaritzak, nahiz eta lehenagotik bortz urtez toki berean lanean aritua zen.

Duela urte batzuk langile talde bat kaleratua izan zen.

Gerora, enpresa eta ordezkarien artean, kontratazio berriak egiterakoan lehendabiziko langile horiek deituko zituztela adostu zuten. Urtetan kontratazio berririk egin gabe egon eta gero, (duela lau urte 122 langile izatetik 54 izatera pasatu da), langile batzuk sartzen hasi ziren, horien artean aipatutako taldeko langile bat, lehenagotik bortz urtez aritua.

Langileen Batzordetik jakinarazi dutenez, «hiru urtearako kontratua eskaini zitzaion, luzatzeko aukerarekin. Gehieenez sei hilabeteko proba tartea



Lehen greba egunean elkarretaratzea egin zuten lantegi atarian. UTZITAKOIA

ezarri zioten eta, langilea bortz hilabetez lanean aritu eta gero, gaingitu ez zuela erranzitzaion. Hau justifikatzeko erabilitako aitzakiak orokorrak eta gezurrak dira (subjektiboak azken finean), postura ez dela egokitu erranez eta behin baino gehiagotan atentzioa deitu zaiola erranez holakorik gertatu ez denean». Hau kasu isolatu bat izatetik hagitz urrun

dagoela uste du Langileen Batzordeak, «langile kopuru murrizketa basatiaren eta enpresaren desegitearen bertze ondorio bat baino ez da». Lan-kideek argi dute «ez dutela lankide batek horrelako traktera bidegabea eta zikina jasotzea onartuko eta enpresaren desegite estrategia honen aitzinean planto egiten dutela» adierazi dute.

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

**2. faseko
AZKEN AUKERAK!**

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



Ikusi pisu pilotoa!!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren araberako finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**





Leitzako plazan hasi eta bukatuko da ibilbidea. ARTXIBOKOA

Mendi Erronkarako izen-ematea zabalik dagoeneko

Martxoaren 31 baino lehen izena ematen duten parte-hartzaileek gutxiago ordaindu beharko dute

TTIPI-TTAPA

Joan den ostiralean ireki zen maiatzaren 18an egingen duten Euskal Herria Mendi Erronkarako izen-ematea. Interesa dutenek *ehmendierroka.eus* atarian eman dezakete izena. Martxoaren 31 baino lehen izena ematen duten kirolari federatuek 56 euro ordaindu beharko dituzte; apiriletik maiatzaren 4ra bitarte izena ematen dutenek, berriz, 66.

Errelebo-lasterketa

Zazpigarren edizioa berrikuntzekin dator. Izan ere, emakumezkoen parte-hartzea

sustatzeko asmoz, errelebo-lasterketa izanen dute (bikote bakoitzeko 75 euro edo 85, izen-emate egunaren arabera).

Izena ematen duten bikoteetatik bat, gutxienez, emakumezkoa izan beharko da. Lehendabiziko korrikalariak Leitzatik Putzuzarrera eramane beharko du lekukoa (33,8 kilometro); bigarrenak, berriz, hortik helmugara (34,2 km).

Lasterketa, orain artean bezala, herriko plazan hasi eta bukatuko da. Bai banaka baita bikotek laster egiten dutenek ere 67 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

Kultura Sailekoak Herri Aretoran eta Ibero dorrean

Gobernuko Kultura Saileko ordezkariak herrian izan ziren. Iberoko lanak bukatuta daudela ziurtatuta Herri Aretora joan ziren. Lan horiek «oso ondo» doazela eta aurten bukatuko dituztela adierazi zuten.



UTZITAKOA



ARGAZKIAK: PABLO FEO ETA UTZITAKOAK

Inauteri euritsuak baina koloretsuak

Euriak ez zuen inauteriak zapuzteko adina indar izan. Igandean kuadrillek eta gurdiek hartu zituzten herriko kaleak eta kolorez eta umorez bete zituzten bazterrak. Ikusle gutxiago bertaratu bazen ere, atsauretu xeble eta landuek ez zuten hutsik egin. Astelehenean baserrietako eskera jende dezente joan zen. Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Erreka baserri-auzoetan ibili ziren. Asteartean, berriz, Erasoste auzoa bisitatu zuten.

Egungo egoeraz eta etorkizuneko asmoez batzarra

2019an Eskoletxeko leiho guztiak berritzea eta erabilera anitzeko espazio bat sortzea aurreikusitako dute

TTIPI-TTAPA ARESO

Urtarrilaren 25ean egin zuten batzarrean Udalaren egoera ekonomikoa izan zuten ardatz: egungo egoerari errepaso, etorkizuneko egitasmoak... Horien artean, hirigintza elkartearen zorra izan zen hizketa-gai nagusietako bat, aurrerantzean Udalaren gain egongo baita. Udalaren menpeko entitate bat da Aresoko Hirigintza Elkarte eta herriko industrialdearen kudeaketaz arduratu izan da. 2018a arte hirigintza elkartearen eta Udalaren kontuak bereizita egon dira, baina 2018an bi erakundeen kontuak kontsolidatu behar izan dituzte. Erabaki honek bi arlotan eragingo dio Udalari, batetik, bere baliabideekin ordaindu behar dituelako Aresoko Hirigintza Elkartearen betebeharrak; eta bestetik, Udalaren zorrari hirigintza elkartearena gehitu behar zaiolako. Ondorioz, zorpetze muga (ohiko sarreraren %110a) gaindituko du.

Egoera horri aurre egiteko 2018ko azaroaren 28an Plan Ekonomiko Finantzieroa onartu zuen. Bertan hirigintza elkarte desegin eta diru-sarrerak lortzeko neurriak zehaztu zituzten. Udalak altxortegian dituen ondasunekin zorraren zati handi bat (402.690,26 euro) aurrez ordaintzea ere erabaki zuen, zorpetze mugarekin bete ahal izateko. Behin kopuru hori ordainduta, hirigintza elkarteari dagokion zorretik 180.539,93 euro faltako litzaizkioke ordaintzeko 2021. urtean ordaindu beharrekoak (ordainketa hori bi urte atzeratu daiteke beti ere Espainiako



Eskoletxeko leihoak berrituko dituzte.

Ogasunak zehazten dituen baldintzen arabera). Udalaren altxortegian 88.600,40 euro geratuko lirarteke.

Hirigintza plana

Horrekin batera, esku artean duen hirigintza planaren lanen esleipenean ere aldaketak izan direla azaldu zuten. Udalak bertan behera utzi du hirigintza plan berria idazteko Prada enpresarekin egindako kontratua, zehaztutako hainbat baldintza ez dituztelako bete. Inazio Arribas Etxebeste arkitekto enpresari eman zaizkio lanak 49.500 eurotan.

Inbertsio nagusiak

2019ko inbertsio nagusiak bi izango dira. Eskoletxeko eraikineko leiho guztiak berrituko dituzte: Pake Toki elkartekoak, eskolakoak eta etxebizitzekoak. Lanek 82.000 euroko aurrekontua dute eta %80 Gobernuak finantzatuko du. Era berean, eskola gaineko etxebizitzak moldatuz erabilera anitzeko espazio bat sortu nahi dute.

Bukatzeko, aurtengo udal hauteskundeetan inguruan ere aritu ziren eta azken bi agintalditan alkate postuan egon den Ur Algerok ez dela berriz aurkeztuko jakinarazi zuen.



Zomorroak auzoz auzo ibiliko dira. ARTXIBOKOA

Aranoko inauteriak otsailaren 23an ospatuko dituzte

O. CALPARSORO ARANO

Otsailaren 23a, larunbata, izanen dute mozorroa janzteko eguna eta haur, gazte eta helduak bilduko dituen momentuaren zain daude herritarrek.

Puska-biltzarekin hasiko dute eguna eta Izer eta Alabier trikitilarien eskutik, giro ederra izanen dute. Ondotik, zomorroen bazkaria egingen dute elkartean. Izen-ematea zabalik da otsailaren 21a arte, Kontsejun. Gaztetxoak Maisuenean bilduko dira, desfilea egiteko eta aurten heroiak izanen dira protagonistak. Antolatzaileek goizean zomorroz eta arra-

tsaldean heroiz mozorrotzeko deia egin dute. Afariarekin borobilduko dute eguna eta ohiko menua izanen dute das-tagai. Aldez aurretik abisatu gero, aukera beganoa ere eskainiko dute. Afalondan atzoko eta gaurko doinuak dantzatzeko Orkestrina Band Jazparnaren doinuak izanen dituzte.

Zahagi dantza

Era berean, Maisuenean herriko gaztetxo eta koxkorrek zahagi dantzan aritzeko gaur-bela egiteko asmoa dute. Data oraindik zehazteke dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxezarreta aresoarra bikain eski gainean

Italian jokatu zen Bardonecchiako jaitsieran lehenbiziko postua eskuratu zuen urtarrilaren 24an. Nazioarteko Eski Federazioak antolatzen du proba Alpinoko Munduko Kopako Biraren baitan. Gaztetatik eskiei lotua, Espainiako Neguko Kirol Federazioko taldekidea da gaur egun aresoarra.



Umore Onako kideak mahaiaren bueltan. ARTXIBOKOA

Umore Onako kide egiteko epea zabalik otsailaren 16a arte

Elkartean eman daiteke izena. 25 urte edo gehiago dituztenek 510 euro eta gutxiago dituztenek 300 ordainduko dituzte

TTIPI-TTAPA

Umore Ona elkarteko bazkide egiteko epeak zabaldu dituzte. Otsailaren 16a, larunbata, izanen da azken eguna eta interesa dutenek elkartearen egoitzan eman beharko dute izena.

Kuotak adinaren arabera

Herritarrek, bazkide egin ahal izateko, bi bazkideren babesa behar izanen dute. Era berean, ordaindu beharreko zenbatekoak adinaren arabera izanen dira. 25 urte edo gehiago dituztenek 510 euro edo 70 euroko kuota bat –lehendabi-

ziko hilabetean– eta 40 euroko hamaika ordaindu beharko dituzte; 25 urte baino gutxiago dituztenek, berriz, 300 euro edo 25 euroko hamabi kuota. Bazkide egin ondotik, ordea, elkarteko urteko kuota berdina izanen da kide guztientzat.

Ohiko batzarra martxoaren 16an

Izena ematen dutenek urteko ohiko batzarrera arte, esperatu beharko dute bazkide izateko. Ohiko batzarra martxoaren 16an, larunbatean, hitzartu dute.

VI. Goizutrail mendi-lasterketan izena emateko epea zabalik

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 11n izanen da Goizutrail mendi-lasterketa. VI. edizioa izanen da aurten goa eta parte-hartzaileek hiru proba izanen dituzte aukeran: banaka egiteko 10 eta 25 kilometroko ibilbideez gain, binaka ere parte har dezakete.

Azken horiek ibilbide luzea egin beharko dute. Hau da, lehen korrikalariak 10 kilometro egin beharko ditu eta herrira bueltatu eta erreleboa emada, bigarrenak 15 kilometro eginen ditu. Izen-ematea zabalik da dagoeneko www.herrikrosa.eus atarian.



J.J. AIZKORBE

Herritarrek garaile pilota txapelketan

Tolosan jokaturako Migel Soroa Txapelketaren VII. edizioan parte hartu dute herritarrek. Iker Salaberriak, Otaduyekin bikote eginda, eta Antton Apezetxeak, Egigurenekin, irabaztea lortu zuten, elite eta promesa-mailan, hurrenez hurren. Partida ikusgarriak jokatu zituzten.

Santa Ageda bezperaren X. urteurrena

Santa Ageda bezperaren ospatu zuten otsailaren 4an, astelehenean, herrian. Aurtengoa hamargarren edizioa izan dute. 20-25 lagun inguru baserritar jantziak jantzita, karriz karriz ibili eta tabernak kantuz girotu zituzten. Ederki pasa zuten.

Udalak kale-argiteria berrituko du

Udalak martxoaren 14a bitarteko herriko 160 faroletan LED argiteria jarriko du. Lanak Loyola Norte enpresak egingen ditu eta guztira 69.727,30 euroko aurrekontua dute (%60a laguntzetatik). Horri esker, kale argiteriaren gastua %70 murriztea espero dute.



FELIX LOIARTE

San Anton Eguna ospatu dute

Urtero bezala, herritarrek San Anton Eguna ospatu zuten urtarrilaren 17an. Ermitan meza aditu ondotik, hamaiketako egiteko bildu ziren. Abesbatzako kideen eskutik, hotzari aurre egiteko txorizo egosia jan eta salda beroa edan ahal izan zuten.

Otsailean hasiko da Eskolarteko bertsolari txapelketa

Herrialdeka egingen diren txapelketen ondotik, parte-hartzaile onenak Saran bilduko dira aurten ere ekainaren 8an

TTIPI-TTAPA

Saguzarra hasia da oinak burura ekartzen. Eskolartekoaren irudi den maskotari ez zaio aunitzik falta hegalak astintzeari ekin eta lurraldez lurralde hainbat bertsozale gazteri bertsoa eragiteko.

Hiru hamarkadetako bidea egin du egitasmoak lurralde guztietan modu bateratuan egiten denetik, eta 31. aldian izanen du aurtengoa. Idatzizko zein bat-bateko txapelketak egin ohi dira Euskal Herriko ikastetxeetan; Ikastolen Elkar-teak eta Bertsozale Elkartek

gauzatzen dute elkarlanean bat-bateko egitasmoa. 15-18 urteko gazteek hartu ohi dute parte horretan.

Ekainaren 8an egingen da Euskal Herriko Eskolartekoaren jaia, Saran. Han elkartuko dira aitzinetik lurraldez lurralde egindako eskolartekoetan aritu diren parte-hartzaileak; kasu gehienetan, herrialde bakoitzeko bina ordezkari.

Eskolartekoa Gipuzkoan hasiko da otsailaren 15ean Zenbait saioaren ondotik apirilaren 5ean jokatu dute finala Lasturren. Nafarroako



Saran izanen dute hitzordua herrialde guztietako bertsolariek. BERTSOZALE ELK.

Eskolartekoa Arantzan egingen dute apirilaren 12an. Maiaztean Araban, Bizkaian eta Lapurdi, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Bizkaian lau saio egingen dituzte maiatzaren 25eko finalaren aitzinetik. Araban gaztetxoek maiatzaren 25ean egingen dute saioa, eta nerabeek maiatzaren 11n, Bertsoa Bizi Gazte Egunarekin batera, Legutian.

Bertsotan aritzeko lekua eskaintzen zaie Eskolartekoaren bidez gaztetxoei, eta etorkizuneko bertsolariak eta bertsozaleak trebatzeko plaza da, gazteen arteko harreman sarea osatzeko bidea ematen duena; gainera, ikasturtea bukatuta, Bertso Udalekueetan jarraipena ematen diote harreman sare horri bertsozale gazte horietako aunitzek.

LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probestu aukerak!

<p>Aritzela DEKORAZIO TAILERRA</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Industrialdea-Suizpi, 3 LEITZA T. 948 61 06 11</p>	<p>edr gunea</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik</p> <p>Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73</p>	<p>E ETXE TRESNAK S.L.</p> <p>%10 DESKONTUA koltxoi, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik</p> <p>Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08</p>	<p>FISIOETXEA Ane Eggozal Ustata Fisioterapeuta</p> <p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Uhartte Gotzaia, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30</p>	<p>Garbi drogeria - lurrintegia</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Huarte Gotzaia, 19 LEITZA T. 948 51 01 73</p>
<p>gatzelu scl iturgintza</p> <p>%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan</p> <p>Egoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86</p>	<p>HERNANDORENA</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55</p>	<p>KAPRITXO</p> <p>%5 DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p>Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>	<p>KU-LUN KT</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Uhartte Gotzaina, 1- behea 4 LEITZA T. 948 51 36 20</p>	<p>OGI BERRI Kafetegi Okindegia</p> <p>%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren LEITZA T. 948 61 09 74</p>
<p>LEITZANROLAN</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76</p>	<p>MAIMUR</p> <p>%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan</p> <p>Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46</p>	<p>Olaia Bazar</p> <p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Behokoa LEITZA T. 948 51 04 37</p>	<p>ttipi-ttapa</p> <p>%10 DESKONTUA esketan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58</p>	<p>LAGUNAK</p> <p>%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20</p>



Udalak lehenbiziko aldiz beka eman zueneko, saridunetako batzuekin. ARTXIBOA

Ikasketa akaberako lanak sarituko ditu Udalak

2.000 euroko kontu saila onartu du, gehienez, lau lan diruz laguntzeko

TTIPI-TTAPA

Tokiko Gobernuak hala erabakita, Baztan ikergai duten ikasketa akaberako proiektu edo lanak egiteko diru-laguntza deialdia onartu du Udalak 2019 urterako. Aurtengoa laugarren aldia izanen du ekimen honek eta aitzineko urteetan bezala, Udalak 2.000 euroko diru-saila onartu du horretarako.

500 euro lan bakoitzeko

Diru-laguntza partida agortzearekin ez dira proiektu gehiago diruz lagunduko. Horretarako, balorazio batzordeak aurkeztutako proiektuen artean puntuazio gehien jaso duten lau proiektuak diruz laguntzeko proposatuko du. Eta hautatutako proiektu edo lan bakoitzari dagokion diru-laguntza 500 eurokoa izanen da.

Laguntza honen helburu nagusia gazteak beraien ikasketekin Baztanen alde inplikatzeko eginahala da. Horretarako, etorkizuna gazteen eskutik heldu dela aintzat hartuz, Udalak bere eskua eskaintzeko apustua egin du bertze urte batez.

Baldintzak

Deialdian parte hartu ahal izateko hautagaiek Baztango udalerrian erroldatuak egon beharko dute. Edo bertze udalerriren batean koiunturalki erroldatuak badira eta horren arrazoa kanpoan ikasketak burutzea bada hori justifikatu beharko dute, baldin eta aurreko errolda Baztanen izan bada. Baldintza horretaz gain, 2018/2019 ikasturtean ikasketetako azken kurtsuan matriculatuak egon beharko dute laguntza jaso ahal izateko.



UTZITAKOA

Pallasos en rebeldía taldea Arizkunen

Pallasos en rebeldía taldeak haur, gazte eta helduendako ikuskizun polita eskaini zuen ilbeltzaren 19an Arizkunen. Emanaldia Arizkun Rock laguntzeko izan zen eta elkartetik eskerrak eman nahi izan dizkiete frontoira agertu zirenei: «erantzuna ikusita, lanean segitzeko indarra eman digu».



Aniz eta Berroetako gazteek elkarrekin ospatzen dituzte inauteriak. M. MARITORENA

Baztango lehendabiziko inauteriak ospatu dituzte Anizen

MAITANE MARITORENA ANIZ

Baztango aurtengo lehenbiziko inauteriak Anizen ospatu zituzten, ilbeltzaren 18an eta 19an. Ortziralean afariarekin hasi zuten gazteek inauteriaroa. Afaria anitz luzatu bazen ere, biharamunean goizeko bederatziarako prest zeuden gosaltzeko. Gosal ondotik etxez

etxe ibili ziren puskek biltzen: Sonborrotik hasi eta Askaingeraino. 23:30ean oraino presarik ez afaltzera joateko. Izan ere, gazteez gain, gainerako aniztarrak ere joaten dira inauteretako afarira eta ondotik Salaberrirekin izaten den dantzaldira. Larunbatekoa ere ordu tikiak artio luzatu zen.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAILA IREKIA
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130

'Drogarik gabe hezi' solasaldia otsailaren 12an

Ilundain Fundazioko teknikoak emanen du hitzaldia eta edozein gurasok parte hartzen ahal izanen du

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Udaleko Gizarteko Zerbitzuekin eta Elizondoko Osasun Zentroko pediatria atalarekin elkarlanean, azken hilabeteetan *Drogarik gabe hezi* izeneko programa lantzen ari dira Lekarozko institutuan, Iruñeko Ilundain Fundazioko teknikoen eskutik. Horren baitan, drogaren inguruan egoera zein den aztertu dute orain arte, eta behin hori egin ondotik, ikasleei eta gurasoei formakuntza eskaini nahi diete. Horixe izanen da heldu den asteartean, otsailak 12, anto-

latu duten gurasoendako hitzaldiaren helburua. Gaian interesa duten guraso guztiei egin diete otsailaren 12ko *Drogarik gabe hezi* hitzaldian parte hartzeko deia. Joan nahi dutenek ez dute izenik eman beharko eta sarrera dohainik izanen da.

Bi orduko saioa Arizkunenean Drogaren inguruko solasaldia Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean izanen da, 17:30etik 19:30era eta Ilundain Fundazioko teknikoa izanen da hizlaria.



Jende andana bildu zen San Anton Egunean Elizondon. ONDIKOL

Zahar-etxearen aldeko zozketa egin dute aurten ere San Anton Egunean

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Aurten ere jendetza bildu zen San Anton Egunean Elizondoko plazan. Gutienez 1867tik egiten den Francisco Joaquin Iriarte Zahar-Etxearen aldeko zozketa ere egun berean egin zen eta aldi honetan, Oier Juanikotena, Mattin Mayora eta Mikel Baylon elizondarrak eta

Ioana Beola almandoztarrak aterazituzten zenbakiak. Lehen saria, aretzea, 6.027 zenbakiari tokatu zitzaion. Bigarrena, zerria, Auzako Pilar Beginok eraman zuen (2.738 zk). Hirugarren saria (bi bildots) 6.689 zenbakiari tokatu zitzaion eta laugarrena (magra) 7.290 zenbakiari.



Zure jaunartzean besta egun zoragarria!

Menu aukera zabala • Jangela pribatua • Bazkal ondorengo festa (aukeran)



Errotaldea z/g 31744 ELGORRIAGA (Nafarroa) | T. 948.45.60.45 | www.balnearioelgorriaga.com

Kultur erakundeek 26.180 euroko laguntza jasoko dute

2018. urtean egindako ekitaldiak laguntzeko eman die laguntza Balleko Etxeak, baita guraso elkarteei ere

TTIPI-TTAPA

2018an antolatutako kultur jarduerari dagozkien diru-laguntzak eman dizkie Baztango Balleko Etxeak herriko kultur erakundeek. Denetara 26.180,93 euro banatuko ditu. Erratzu, Elizondo eta Irurita-ko guraso elkarteek 2.119 euroko laguntza jasoko dute.

Diru-laguntzarik handienak Baztandarren Biltzarrak eta Jo ala Jo elkarteak jasoko dituzte: 5.864,26na euro jasoko ditu elkarte bakoitzak, Baztandarren Biltzarra eguna eta Kirikoketa besta antolatzeagatik, hurrenez hurren; Baztango Dantzariak elkarteak 5.791,93 euro jasoko ditu (zatiirik handiena, 4.776,44 euro, *Herriko soinuak* ikuskizuna antolatzeagatik; 258,02 euro dantza-ikastaroarengatik eta 757,47 igandetako Bailableengatik; Elizondoko abesbatzak 2.482,53 euro jasoko ditu Arraiozko kontzertuarengatik; Irurita-ko dantzariak 1.466,06 euro dantza-emanaldiarengatik; Elizondoko Recreo Bandak 1.328,25 euro Eguberritako kontzertuarengatik; (H)ilbeltzak



Kirikoketa besta. JMI ONDIKOL

1.078,04 euro Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatzeagatik; Itxusi argazki elkarteak 1.011,58 euro argazki-erakusketagatik; Erratzuko kultur elkarteak 659,72 euro Giza-kunde antolatzeagatik; Elizondoko Casino elkarteak 395,83 euro pintura-lehiaketagatik; Legate elkarteak 121,19 euro xaboi- eta Mutildantza-ikastaroarengatik eta Otsondo barride elkarteak 117,28 euro bertso-afariarengatik.

Guraso elkarteei ere

Guraso elkarteei dagokienez, Elizondoko Eskolako Guraso Elkarteak 1.139 euro jasoko ditu, Irurita-ko Guraso Elkarteak 797 euro eta Erratzuko Ertzuin Guraso Elkarteak 183 euro.



UTZITAKOA

Xauliren kuadroa M^a Eugenia Sobrinori

Xauli adimen desgaitasunerako aisialdiko klubak Begoña Durrutyk emandako margolan bat zozketatu zuen Elizondoko ferietan eta Elizondoko Maria Eugenia Sobrino Salaburu suertatu da saritua, berak baitzuen 0747 zenbaki saritua. Margolariaren eta Xauliko kideen eskutik jaso zuen.



ARGAZKIA ETA TESTUA: NEREA MORTALENA

Euskal Herriko mus txapelketa Arraiozen

Arraiozko Arizti Elkartean Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa burutu zen. 14 bikotek hartu zuten parte. Maria Helene Pain eta Enkarna Andueza suertatu ziren irabazle; Aritz Alunda-Garikoitz Larretxea, Iñaki Mihura-Daniel Saldias eta Javi Otxandorena-Juan Carlos Mortalenaren aitzinetik.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

IDIAZABAL

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRUKTURALAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

2019ko (H)ilbeltza beka abian da dagoeneko

Lagina eta proiektua aurkezteko epea maiatzaren 10ean akrituko da eta onuraduna nor den ekainean erranen dute

TTIPI-TTAPA

Txalaparta argialetxearen eta Baztango Udalaren laguntzaz, (H)ilbeltza elkarteak «sormena eta itzulpengintza» jorrazteko helburuz sortu zuen (H)ilbeltza bekaren III. edizioa urtarrilaren 30ean aurkeztu zuten. Bekaren nondik norakoak Joseba Otondok, Baztango alkateak; Alberto Atxak, (H)ilbeltza elkartearen kideak; eta Garazi Arrulak, Txalapartako editoreak, azaldu zituzten.

Baztanek euskal nobela beltzarekin duen lotura azalduz abiatu zuen aurkezpena Otondok. Era berean, Udalak beka horrek «euskararen normalizazioan gure mintzoa prestigioa eta goratzeko; literaturan pisu handikoa den literatura beltza gozatu eta dastatu ahal izateko; eta idazleen eta itzulzaileen lana sustatzeko» ekarpena dela uste duela gaineratu zuen. Hortaz, aurten ere, Txalaparta argialetxea eta bien artean, erdi bana, 6.000 euroko laguntza emanen dutela erran zuen: «argitaratzeko konpromisoa» ere hartuko dute.

Atxak jakinarazi zuenez, idazle «guztiei» luzatu diete parte hartzeko deia. Bekaren onuradunak egindako lana 2021eko (H)ilbeltza Astean aurkeztuko dutela argitu zuten. Gisa bertsuan, beka jasotzeko hautagaiek jarraitu beharreko «oinarriak eta nobela beltzari

buruzko bertzelako artikulua, iruzkin edota elkarrizketa interesgarri» *hilbeltza.eus* atarian eskuragarri daudela adierazi zuten.

Arrulak borobildu zuen aurkezpena. Edizioz edizio itzulpena eta sormena tartekatzen dituen beka horretan 2019koa «sorkuntza narratibora bideratua» dela argitu zuen. Bukatzeko, bekara aurkezten direnek «lagina eta proiektuaren asmoak» adierazi behar dituztela jakinarazi eta lanak aurkezteko epeak eta bideak oroitarazi zituen: «postaz edo Udaleko erregistroan aurkez daiteke, maiatzaren 10a arte». Onuraduna nor den ekain hondarrean jakinaraziko dute.



Anizen Koldo Izagirrekin egindako hitzorduan. (H)ILBELTZA

Bortz urte literatura beltzaren bueltan

Eskerrak emanez eta irria aurpegian. Halaxe agurtu du (H)ilbeltza elkarteak aurten bosgarren urtez antolatutako Euskal Nolbela Beltzaren Astea. Ilbeltzaren 14tik 20ra hainbat idazle eta hizlari pasatu ziren Arizkunen, Anizen, Elizondoko, Arraiozen eta Erratzun egin ziren saioetatik.

Oihane Prim da Iruritako alkate berria

Oihane Prim Agerrebere izanen da Iruritako alkate datozen bi urteetan. Ilbeltzaren 27an egindako batzarrean bere burua aurkeztu zuen, gibelean kargodun eta laguntzaile taldearen babesa duela eta bera aukeratu zuten alkate, Peio Obregozo ordezkatzuz.

'Zerua berun' errezitaldia Elizondoko

Castillo Suarez, Asier Serrano eta Antxon Sarasuak *Zerua berun* izeneko errezitaldia eskainiko dute igande honetan, otsailak 10, Elizondoko Arizkunen. Emanaldia izen bereko helduendako album ilustratua oinarritua dago eta 19:00etan hasiko da.

'Txoriak eta zauriak' helduendako antzerkia Iruritan

Mairu Antzerki Tailerrak *Txoriak eta zauriak* helduendako antzezlan eskainiko du otsailaren 17an Iruritako Gizarte Bilgunean, 19:00etan hasita. 1940an, Lesaka eta Oiartzun arteko errepidean behartuta lanean aritu ziren frankismo-ko bi preso dira protagonistak.

Menopausiari buruz tailerra Elizondoko Osasun Etxean

Elizondoko Osasun Zentroan menopausiari buruz tailerra eskainiko dute otsailaren 13an eta 20an, 11:00etatik 13:30era. Apuntatzeko Elizondoko Osasun Zentrora joan behar da edo 948 581 832ra deitu. Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko adineko emakumeendako da.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
empresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Turismo arloan «zirrika gainean» dator urtea

Baliabideen Gida eta Baztan-Bidasoko Mapa Zikloturista, FITURren aurkeztu ditu Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismoak Elkargoak urte hasierako batzar orokorra egin zuen urtarrilaren 16an. Bertan 2018ko balantze positiboa egitearekin batera, 2019ko egitasmoak eta aurrekontuak onartu zituen. 2018ko proiektu nagusiak, Baliabideen Gida eta Baztan-Bidasoko Mapa Zikloturista, FITURren aurkeztu zituen Elkargoak.

Patxiku Irisarri Elkargoko lehendakariak iragan urtea, promozioari eta bezeroen arretari eskainitako urtea izan zela adierazi zuen. Zentzu horretan Erreserba Zentrala berritzaren garrantzia azpimarratu zuen. Proiektu nagusien artean Baztan-Bidasoko Baliabideen Gidaren edizio berria nabarmendu zuen. Lau hizkuntzatan eta formato berrian kaleratutako aldizkarian, Baztan-Bidasoa eskualdeko informazio orokorra aurkituko du bisitariak. Argitalpen hau Baztan-Bidasoa Turismoak eskualdea ezagutarazteko ferietara eramaten duen euskarri garrantzitsua da.

Nabarmentzekoa baita Baztan-Bidasoa Turismoak, Ederbidea egitasmoaren baitan egin berri duen Baztan-Bidasoko Mapa Zikloturista ere. Eskualdeko bide nagusiaz gain, 12 lotura zikloturista, inguruko herrietan seinalizatutako ibilbideak eta hainbat tontor igotzeko bideak biltzen ditu, hala nola, txirindulariak eskualdean aurkituko dituen zerbitzuen zerrenda: bizikleta tailerrak, landetxeak, jarduera empresak, jatetxeak... Urtarrilaren 23tik 27ra Madril en egin zen FITUR Ferian egin zituzten Gidaren eta Maparen aurkezpenak.

Zenbakiei dagokionez, defizitarik gabe itxi du 2018. urtea Baztan-Bidasoa Turismoak, hartara, balorazio positiboa egin du Elkargoak.

2019ra begira

Proiektuz josita heldu da 2019a. 16 egitasmo aurkeztu eta onartu zituen batzar orokorrak, bertzeak bertze, web gunea indartzea, on line bidezko promozioari bultzada ematea, Bizikleta Eskola antolatzea eta



Baliabideen Gida eta Mapa Zikloturista argitaratu ditu Elkargoak. UTZITAKOIA

Ederbidea Martxaren edizio berria egitea.

Aurten ez dute hutsik egingen Ehiza Jardunaldi Gastronomikoen, Bisira Gidatuen eta Bisita gastronomikoen eskaintzek ezta *Zer egin Baztan-Bidasoan* egitasmoak ere. 2019ko egitasmo guztiak aitzinera eramanez, Baztan-Bidasoa Turismoak 50.694 euroko aurrekontua izanen du.

Baztan-Bidasoa Turismoak kideen lana aitortu eta 2018an bereizgarriak lortu dutenak zoriondu nahi izan zituen urteko batzarrean.

Jatetxeen arloan, Donamari Benta eta Elbeteko Posadak *Slow Food* sarean aipamen berezia lortu dute; horrez gain, Donamariako Benta *Big Gourmand Michelin* izendatu dute hirugarren urtez.

Ordoki Zalditegiak aipamen berezia lortu du zaldi gaineko

turismoaren arloan eta Sunbillako Ariztigain kanpinari kalitatea adierazten duen "Q" eman diote. «Gure produktuek ospe handia erdietsi dute 2018an Kortariko Gasna gasnategiak lortutako sari anitzei esker» azpimarratu zituen.

Elkargoko kide izateko deia

Baztan-Bidasoa Turismoak, eskualdea eremu turistiko gisa indartzea du helburu. Egun, elkargoko bazkideak «auzolanen», elkarlanean bide hori jorratzen ari dira eta bidelagun gehiago izateko, hotel, landetxe, jatetxe, jarduera enpresa eta turismoarekin loturiko establezimendu guztiak kide egiteko gonbidapena luzatu nahi die. Baztan-Bidasoa Turismoak ateak zabalik ditu kide berriak hartzeko. Interesa izanez gero, 948 59 23 23 telefonora deitu edo mezua igorri info@baztan-bidasoa.com helbidera.

Angel Mariezkurrenaren AMD kultura proiektua interes sozialekotzat jo dute

TTIPI-TTAPA ERATSUN

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak interes sozialekotzat jo ditu 29 artista eta erakunderen proiektuak, kultur jarduerak eta eredu-programak, eta horri esker, Kultur Mezenasgoaren Foru Legean

aurreikusitako zerga-pizgarriez profitatu ahalko dira, PFEZeko kuotan % 80rainoko kentaria egiteko aukerarekin, mikro-mezenasgoaren kasuan. Eskualdeari dagokionez, eskal kantuen jaialdiak antolatzegatik ezagun den Angel Mariezkurrena eratsundarra-



Angel Mariezkurrena.

ren AMD kultura proiektuak sartu dute zerrendan.

Kasu guztietan, aitortpena proiektuak eta jarduerak gauzatzen diren bitartean izango da indarrean. Proiektu guztiek *Mecna Zigilua* anagrama erabili ahalko dute aitortpenari atxikitako proiektu, jarduera eta eredu-programei buruzko komunikazio eta argitalpenetan. Bertze 260 proiektuk ere kalifikazio hori jasoa dute.

URDAZUBI


Bertso-afaria otsailaren 16an Gaiñara elkarte

Afari-txartelak igandera arte, otsailaren 10a arte, eros daitezke, 25 eurotan.

TTIPI-TTAPA

Besta Batzordeak antolatuta, Alaia Martin eta Julio Sotoren bertsoek girotutako bertso-afaria izanen dute otsailaren 16an, larunbatean, herriko Gaiñara elkarte. 21:00etan zehaztu dute hitzordua.

Afari-txartelak dagoeneko salgai daude eta otsailaren 10era arte, igandera arte, eskuratu ahal izanen dira 25 eurotan. Izena eman nahi dutenek 679 32 81 62 edo 679 20 80 20 telefonora deitu edo Whatsapp bat idatzi beharko dute.



Soto eta Martinek girotuko dute.

Otsaileko afari horren ondotik, inauteriei begira hasiko dira herritarrak. Izan ere, martxoaren 3tik 5era, igandetik asteartera, inauteriak ospatuko dituzte herrian.



Mus txapelketan jokoan. UTZITAKOA

Mikel Cenoz eta Xabi Etxeberria irabazle mus txapelketan

TTIPI-TTAPA

Besta batzordeak antolatuta, mus txapelketa jokatu zuten urtarrilaren 26an, hondarreko larunbatean, herriko Gaiñara elkarte.

Guztira zortzi bikotek parte hartu zuten eta Mikel Cenoz eta Xabi Etxeberria izan ziren musulari trebeenak. Azpitxa-

peldun, berriz, Klemente Suhas eta Joxe Suhas aita- semeak izan ziren. Dagoeneko bi txapelketa jokatu dituzte herrian eta batean zein bertzean giro ederra izan dute. Parte-hartzaileez gain, ikusle andana bertaratu da eta partidak jokatatu bitartean mokadutxoak dastatu ahal izan dituzte.

ZUGARRAMURDI



Loretxo aldean, 2016ko ibilaldi batean. UTZITAKOA

Atxuria mendi-taldeak aurtengo ibilaldiak lotu ditu

MARIFA ETA KORO

Atxuria mendi-taldeak 2019ko ibilaldiak zehaztu ditu. Hila-betero, uztailean eta abuztuan izan ezik, irteera bat egingen dute: urtarrilean San Antone-rat joan ziren eta otsailean Baztango ermitak; martxoan Orizki (Zugarramurdi-Orizki-Urdazubi); apirilean Ezkaba

mendia; eta maiatzean Beratik abiatu eta Hirugarren mugarrin barrena Ibardin bisitatu dute. Ekainean Xaretan barna eguneko ibilaldia egingen dute; irailan Beratik Etxalar-rera; urrian Etxebertzeko bordara; azaroan Gorramenditik Bozatera; eta abenduan Larunera joanen dira.

Madariako bidean bi zabaltoki egin dituzte

Etxeaundiko bordan eta Eltsospe aldean mendiari puska kendu eta lurrean harri-pikorra bota dute. Lezetik aitzinera, berriz, Madaria bideko zelaia garbitu eta zola leundu dute, lezetako bisitariek bertan aparkatzen baitute.





BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ORBEA CONDA SCOTT BH GIANT LIV MERIDA

Herriko ihauteriak otsailaren 23an ospatuko dituzte

Aitzineko hiru asteetan etxeko eskeekin hasiko dira eta igandeko auzia eta ospakizunekin burutuko dute

PIERRE BASTRES

Azken urte hauetan bezala, Zaku Zaharrak elkarteak ihauteriak antolatu ditu. Usaiako egitarauari atxiki zaizkio oro har, eta aldaketa gutti eman nahi izan dute.

Otsailaren 2an, 8an eta 16an auzoetako senpenterrei xingar eta arraultzak eskatuko dizkiete: 2an Urgurrin, 8an Ibarrunen eta 16an Hergarain.

Egun osoko besta

Otsailaren 23ko goizean ere herri erdialdeko bi etxeetarako ganen dira eskean, asteburu handia berotzen hasteko. Ondotik, herriko barneko hiru ostaturak pintxo potea proposatuko dute, hiru eurotan. Ben Fourt-Arteaga Zaku Zaharren lehendakariak azpimarratu duenez, «lehenengoz antolatuko dugu pintxo poteoa tabernekin, bertze urteetan bazkaria guhaurrek sukaldatu izan dugu, Herriko Etxearen aitzineko oihal etxearen azpian. Tabernek gogotik onartu dute. Gainerat Xupz txaranga etorriko zaigu giroa berotzeko. Hiru neska dira, bik trikia jo-

tzen dute eta azkenak txistua. Izigarri erakargarriak dira: jendeakantuan paratzen dute».

15:30etik goiti, Senperen Kantuz eta Zirikolatz dantza taldeek bazterrak mugiaraziko dituzte, eta 16:00etan Zirikolatzek krakada prestatuko du. Denbora berean Mutxikoen zaleek dantatzeko parada izanen dute, Saltoka elkarte musikariekin.

Auzia baino lehenago desfilea edo ibilaldia osatuko dute elkarte zonbaitek, Hazparneko joaldunen gibelean ikusten ahalko dira Donapaleuko erraldoiak beren gaiteroekin, trikititxa eskolako ikasleak Mada beren irakasleekin, Senpereko danborrada eta nahi duten guziak. 18:00etan San Pantzar auzitan emanen dute eta erreko dute.

Ondotik lekukoa hartuko du Elutxa txarrangak, eta Zaldubi Ikastolako gurasoek haiek egindako jatekoasalduko dute, tarta eta kixak.

23:00etatik 02:00etarat DJ Amelie eta Alaia ariko dira gaualdia animatzeko eta eguna borobiltzeko.



Mozorroak gan den urteko ihauterietan. PIERRE BASTRES



Senpereko ihauterietako afitxa koloretsua.

OSPAKIZUNETARAKO SALA ALOKATZEN DUGU

Gure lokala nahi duzun ospakizuna nahi duzun moduan antolatzeko aloka dezakezu: ezkontzak, jaunartzeak, bataioak, familia bazkaria...

- 170 laguntzako jangela
- Sukalde profesionala edo catering enprekin harremanetan jarriko dizugu.
- Lo egiteko tokia 15 pertsonendako.



T. (0034) 948 59 92 22 | (00 34) 690 755 875 | Urdazubi (lezeen ondoan)

www.ikaburua.com

Agiantzak aurkeztu ditu Herriko Kontseiluak

Aurten zergak ez altxatzea erabaki du Herriko Kontseiluak kontuak aldekoak direla eta

TTIPI-TTAPA

Urteko hitzorduari hutsik egin gabe, herriko agiantzak aurkeztu zituzten Battit Laborde auzapezak eta axuantek ilbeltzaren 18an. Esker oneko hitzekin hasi zuen saioa auzapezak, eta ondotik, axuantek, bakoitzak bere arloko xehetasunak eman zituzten.

Obrak, ikastetxeak eta laborantza

Stephane Barneixek joan den urteko lanen berri eman zuen eta aurtengoak ere aurkeztu zituen. Halanola, Saint Josephhe eskola berriarentzat sarbidea eginen du herriak. Lizarietako proiektuarekin ere ari dira, eta «aitzineratuak» omen dira hegaztien behaketarako gunea egiteko lanak. Horrez gain, kiroldegian bi gela gehiago eginen dituzte eta eskola pu-

blikoan haurren bilgunea antolatuko dute. Bideak antolatzeari «baitezpadakoa» dela adierazi zuen Barneixek.

Christine Mendiondek hiru ikastetxeetan 290 haur direla oroitarazi zuen eta Olhain Ikastolari eta Saint Josephhe ikastetxeei diruz laguntzen dietela ere kontatu zuen. Bertzalde, haurtzaindegian hamar haur eta hiru enplegatu daude, baina azaldu zuenez, «haur gehiago errezibitzen ahalko dira; bada haunditzeko lekua».

Pettan Errandonea laborantzako kontuez mintzatu zen. Horrekin batera, usotegiatarako bidean arbol anitz erori direla eta, egun horien pikatzea Pagatxa enpresari eman diotela azaldu zuen. Bertzetik, Xominenbordako ardi-borda antolatu dute eta aurten Ega-buruko, Etxoinek eta Andoi-



Agiantzen aurkezpenen auzapeza, axuantak eta bildutakoak. GANEX

tzenbordako ardi-bordak egin nahi dituzte.

Zergak bere horretan

Jean Michel Jauregi diruzainak kontuak aldekoak direla aipatu zuen eta ez dituztela zergak altxatuko. Bonefonen lokalean zer egin behar duten pentsatzen ari direla ere adierazi zuen.

Tripotxen bazkaria larunbatean

Maritxu Arizkorretak Beti Gazteei ateraldiak egin dizkietela

azaldu zuen eta horretan segituko omen dute. Tripotxen bazkaria, berriz, otsailaren 9an eginen dute, 12:30ean Lur Berri gelan.

2016az geroztik herriko idazkaria den Sylvie Beamontek ere hartu zuen hitza, eta Kontseiluko eta bulegoko lagunen aldetik «ongi lagundua» izan dela erranez eskerrak eman zituen. Hitzordua finitzeko jatekoa eta edateka eskaini zuten bildutakoentzat.

Hamargarren Usopop jaialdirako sartzeak salgai

TTIPI-TTAPA

Aurtengo maiatzean, hamargarren urteurrena beteko du Usopop jaialdiak, eta hamargarrenean ere musikazaleen topaleku bilakatuko da Lizarietako lepoa. Maitzaren 25ean eta 26an izanen da aurtengo jaialdia eta Euskal Herriko eta kanpoko hainbat talde gonbidatuko dituzte: Anari, Asile Club, Efrim Manuel Menuck, Joseba Irazoki eta lagunak (Bera), Lisabö, Lysistrata, Lankum, Madeleine, This is kit eta Los Chimberos, bertzeak bertze.



Aurtengo jaialdian ageri den irudia.

Sartzeak salgai

Dagoeneko salgai paratu dituzte sartzeak. Interesa duenak usopop.com atarian erosten ahalko ditu. Bi egunetarako sartzea 22 eurotan dago.

Euskal ligako sailkapenean liderra da errugbi taldea

TTIPI-TTAPA

Fin-fin lanean segitzen du Sarako Izarra errugbi elkarte-ko talde nagusiak. Euskal ligan liderra da eta lerro hauek idazterakoan joan den asteburuko partidaren emaitza falta bazen ere, ligan jokatu dituen gainerako partida guztiak irabazi ditu. Urtarrilaren 26an, erraterako, etxean jokatu zuen Bizkaiko Aviaren kontra eta ondotik 25 lagunek bazkaria egin zuten. Asteburu honetan ere, otsailaren 10ean, etxean jokatu du Zarauzko (Gipuzkoa) taldearen aurka.



Hilaren 26ko bazkariko irudiak. GANEX



Xanti Uterga, sakean, Galarretan ilbeltzaren 26ko finalean. MAIALEN ANDRES



Uterga txapeldunorde eta Urriza txapeldun, sari banaketaren ondotik. M. ANDRES

Bosgarren aldiz Master txapelketa irabazi du Urrizak

Urtarrilaren 26ko finalean bere onena eman behar izan zuen Xanti Uterga doneztebarra menperatzeko (30-28)

TTIPI-TTAPA

Urrizak bosgarren aldiz (2013, 2014, 2017, 2018 eta 2019) irabazi du erremonteko Master-UTS Komunikazioa txapelketa, urtarrilaren 26an Galarre-

tan jokaturako final handian Xanti Utergari 30-25 irabazi ondotik. Pronostikoa bete zen, baina Doneztebeko aurrelaria menperatzeko bere onena atera behar izan zuen Urrizak.

Zati handi batean nagusi

Xanti Uterga finalaren zati batean nagusi izan zen, baina azken aldiak izan zuen beharalditxo baten ondorioz ez zuen sorpresa gauzatzetik izan. Hasieran aitzinetik ibili zen Doneztebeko, lauzpabortz tantoren aldearekin (1-4, 4-9 eta 7-11), hamahirunako berdinketa bitarte. Hortik aitzinera Urriza izan zen aitzinetik, baina tanto alde handirik gabe. Hogeina eta hogeita bina berdindu ondotik hautsi zuen partida Iruñekoak. 6-1 eko partzialarekin 27-22 eta 29-23 jarri zen eta Uterga lau tanto-

ra hurbildu bazen ere (29-25), garaipena eta txapela Urrizak lortu zuen.

Utergak tantorik politenak egin zituen, batez ere hormabikoen bidez (7 egin zituen modu horretara). Denera 16 tanto egin zituen Doneztebekoak eta 23 txapeldunak. Sakea ez zen erabakigarria izan. Utergak lau tanto egin zituen sakez eta bi falta eta Urrizak hiru tanto egin eta bat galdu egin zuen lehen pilotakadarekin. Piloteoan huts gutti egin zituzten, hiru Urrizak eta lau Utergak. Doneztebekoak hurrengoan beharko du!



UTZITAKO ARGAZKIA

Hirugarren urtez Malerrekako finalean

Otsailaren 23an jokaturako dira Malerrekako pilota txapelketako finalak. Oraingoz, elite mailako finalistak bakarrik erabakiak dira: hirugarren urtez segidan finalista den Iker Salaberria goizuetarra eta Uriondo (Lea Ibarra), Labaka (Tolosa) eta Errekako Gorritiren kontra ariko dira.

Antton Apezetxea eta Iker Salaberria txapeldun Tolosan

Tolosan jokaturako Migel Soroa Txapelketaren zazpigarren edizioan parte hartu dute pilotari goizuetarrek. Iker Salaberriak, Otaduyekin bikote eginda, eta Antton Apezetxeak, Eigurenekin, irabaztea lortu zuten, elite eta promesa mailako finaletan.



UMORE ONA ELKARTEA

III. Master Cup txapelketan hasi dira Agirre eta Elizalde

Leitzarra lehen mailan ari da, bi aldiz txapeldun izan den Olatz Arrizabalagarekin bikote eginez, eta zubietarra promozio mailan, iaz ere lagun izan zuen Araitz Eizagirrerekin



Ilbeltzaren azken aste hondarrean jokatu zituzten lehen partidak. UTZITAKOA

TTIPI-TTAPA

Orain arteko binakako Laborak Kutxa Emakume Master Cup-aren bi txapelak elkarrekin irabazi dituzten Leire Etxaniz eta Olatz Arrizabalagak ezin izanen dute aurten hirugarren txapelketa elkarrekin irabazi, lehen mailako bikoteen osaketan bananduta agertzen dira eta. Hain zuzen, Iera Agirre leitzarrek jokatu du Arrizabalagarekin. Sei bikoteak bi multzotan banatu dituzte eta talde bakoitzean ligaxka bat jokatu dute, denak denek aurka, baina jardunaldi bakoitzean partida bakarra jokatu. Lehen mailako txapelketa otsailaren 3an hastekoa zen Murgian.

A multzoan, Leire Etxaniz-Leire Garai, Patri Espinar-Mirian Arrillaga eta Maider Mendizabal-Arrate Bergara bikoteak ari dira; B multzoan, berriz, Olatz eta Maite Ruiz de Larramendi, Iera Agirre-Olatz Arrizabalaga eta Ainhoa Romero-Amaia Aldai.

Promozio mailan, berriz, 98 pilotari hasi dira, tartean Naroa Elizalde zubietarra, berriz ere Araitz Eizagirrerekin bikote eginez. Aurten, Elizalde izanen da atzelari. Ilbeltzaren azken aste hondarrean hasi ziren kategoria honetan.

Bi kategorietako finalak martxoaren 10ean jokatu dituzte Zumarragan (Gipuzkoa).

Bizkaitarrak, gipuzkoarrak, arabarrak eta nafarrak ez ezik, Kataluniako (12), Errioxako (5), Aragoiko (3) eta Valentziako (2) pilotariak ere ari dira txapelketan.



Gure ikasleen ahotan

Lore CALONGE AZPIROZ, Leitza >

«Unibertsitatearen esperientzia gertukoa, konfiantzazkoa eta esanguratsua izaten ari da»

Lore Calonge Azpiroz leitzarrek 19 urte ditu, eta Lehen Hezkuntza –Heziketa Fisikoa ibilbidea– graduako ikaslea da, bigarren mailan dihardu gaur egun.

Definitu pixka bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Leitzan egin ditut orain arteko ikasketak guztiak, Haur Hezkuntzatik Batxilergora. Hiru urtetik hasi eta hemezortzi urte arte. Honen ondotik, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Eskoriatzako campusean ikasten hasi nintzen.

Zaletasunez hitz egiteko, musika azpimarratuko nuke. Honetaz gain, serieak ikustea ere gustuko dut, eta baita naturaz inguratuta egotea ere.

Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza Heziketa Fisikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Betidanik izan dut buruan bueltaka irakasle izateko nahia. Gradu bat aukeratzeko orduan, lehenengo aukera nuen beti. Unibertsitate eta gradu ezberdinak begiratzen orduak eta egunak aritu ondotik, Mondragon Unibertsitatearen metodologiak eta filosofiak konbentzitu ninduten.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Lehenengo egunetik nabaritu nuen ordu-arteko ikasketetatik ezberdina izanen zela aurrerantzean jasoko nuena. Irakasleak gurekiko zuen jarreratik hasita. Orain artekoa hitz gutxitan esateko, honela deskribatuko nuke: gertukoa, konfiantzazkoa eta esanguratsua.

Nola definituko zenuke HUEZIn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Nik bizi izan dudanutik begiratuta, aurrerakoia. Ikasleen arteko aniztasuna begiratzetik has naiteke. Nortasun eta gaitasun osotara ezberdinetako ikasleak gaude. Denoi helburuetara iristeko

gai garela ikustarazten digute, behar adina baliabide emanez. Bestalde, moduluak lantzen ditugu, ikasgaiak beharrez. Nolabait azaltzeko, kurtsoko edukia bost

multzotan sailkatuta daukagu, modulu bezala definitzen ditugunak. Hauek, proiektuen bidez lantzen ditugu. Aipatzekoa da, ikaslearen ebaluazioa gauzatzeko, notez baliatu beharrez, ikaste emaitzak baloratzen dizkigutela (konpetentzia edo gaitasunak).

Unibertsitateatik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana zera da, ikasle asko garen arren, bakoitzari behar dugun arreta eskaintzen digutela, ikasle bezala bai, baina pertsona bezala ere ikusten gaituztela. Metodologia ere, dudarik gabe, azpimarratzekoa da. Azterketarik gabeko ikasketak ari gara gauzatzen, proiektuak lan eginez eta ikaste esanguratsu bat lortuz.

Hobetzeko... Agian ez dago unibertsitatearen esku, badakit. Baina Eskoriatza oso urrun geratzen da. Beraz, erraztasun gehiago eman beharko lirakeela iruditzen zait ikaslearen artean harremana errazteko, joan-etorriak errazteko helburuarekin.



AGENDA

OTSAILAK 7 - OTSAILAK 21

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

ELIZONDO

Menopausia hizpide

Osasun etxean, otsailaren 13an eta 20an, 11:00etatik 13:30era. Izen-ematea: osasun etxean edo 948 58 18 32 telefonoan.

Nutrizio-etiketak irakurtzen ikasteko saioa

Zubigaina etxean, otsailaren 25ean, 10:00etatik 12:00etara. Izen-emate epea: otsailak 18, 699 11 71 91 (25 euro).

'Drogarik gabe hezi' solasaldia

Ilundain Fundazioko teknikoek eskutik. Arizkunenean, otsailaren 12an, 17:30etik 19:30era.

DONEZTEBE

'Komunikazioa, jarrera aldaketan aurrean erabili beharreko tresna'

Mankomunitatean, otsailaren 21ean, 16:30etik 18:00etara.

IGANTZI

Guraso eskola

Miren Camisonekin. Otsailaren 18an, 17:00etatik 18:30era.

IKASTAROAK

BERA

Gaita eta atabala ikastaroak

Musika eskolan, otsailatik ekainera, 13:00etatik 14:00etara.

DONEZTEBE

Musikoterapia tailerra

Herrigunean, otsailaren 1ean hasita ortziralero.

ITUREN

Adimen emozionala langai

Abarun aterpetxean, otsailaren 22tik 24ra.



M- MUTUBERRIA

ELIZONDO 'Zerua berun' errezitaldia

Castillo Suarez, Asier Serrano eta Antxon Sarasuaren eskutik. Arizkunenean, otsailaren 10ean, 19:00etan.

BERTSOAK

URDAZUBI

Nafarroako txapelketako final-laurdena

Kultur etxean, otsailaren 10ean, 17:30ean.

Bertso-afaria

Julio Soto eta Alaia Martin bertsolariekin. Gaiñara elkartean, otsailaren 16an.

IRURITA

Nafarroako txapelketako final-laurdena

Gizarte Bilgunean, otsailaren 16an, 17:30ean.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Komorebi

Maiela Zurutuza eta Josu Jimenez. Kamorebi japonierazko kontzeptuan oinarritutako lanak. Baztango Liburutegi Publikoan, otsailean.

IRTEERAK

ELIZONDO

Ezkabara

Otsailaren 10ean, plazatik abiatuta, 07:00etan.

Artikutzara

Otsailaren 17an, plazatik abiatuta, 07:00etan.

AZOKAK

SENPERE

Bertako produktuen merkatua

Larunbatero, elizako plazan, 08:00etatik aitzinera.

DANTZAK

ARIZKUN

Bailableak

Baztango dantzarien eta Elizondoko gaiteroen eskutik. Plazan, otsailaren 10ean, 12:30ean.

IKUSKIZUNAK

IGANTZI

Eskolako haurren antzerkia

Eskolan, martxoaren 1ean.

ELIZONDO

'Zerua berun' errezitaldia

Arizkunenean, otsailaren 10ean, 19:00etan.

DONEZTEBE

'Hego haizeak Ipar doinuak'

Ezkurra pilotalekuan, otsailaren 16an, 19:30ean.

IRURITA

'Txoriak eta zauriak' helduendako antzerkia

Mairu Antzerki Tailerraren eskutik. Gizarte Bilgunean, otsailaren 17an, 19:00etan.

BERA

'La buena, la mala, la ergela y la madre que las parió' antzezlanak

Emaitza taldearen eskutik. Kultur etxean, otsailaren 24an, 19:00etan.

ZINEMA

DONEZTEBE

'Banpiro txikia' eta 'Oreina' filmak

Zineman, otsailaren 10ean, 16:30ean hasita.

LEHIAKETAK

BAZTAN

Argazki lehiaketa

BRTren eskutik. Gaia: lohia. Martxoaren 15a arte, info@baztanrt.com helbidera.

DONEZTEBE

Indarkeria matxistaren aurkako i. ipuin lehiaketa

Liburutegiak antolatua.



Nafarroako Bertsolari Txapelketa
2019

URDAZUBI

Otsailak 10. 17:30ean, Kultur Etxean



IRURITA

Otsailak 16. 17:30ean, Gizarte Bilgunean



URDAZUBI-IRURITA Bertsolari txapelketako final-laurdenak

Urdazubiko Kultur Etxean eta Iruritako Gizarte Bilgunean jokatuko dira, Otsailaren 10ean eta 16an, hurrenez hurren.

Otsailaren 8a arte,
bibliodoneztebe@yahoo.es
helbidera.

ESKUALDEA Inauterietako argazki lehiaketa

ERRAN.EUS atariak antolatua.
Martxoaren 22ra arte bidal
daitezke, erran.eus atariaren
bidez.

INAUTERIAK

DONAMARIA Inauteriak

Otsailaren 9an. Xehetasunak
27. orrialdean.

ARANTZA Inauteriak

Otsailaren 14tik 16ra.
Xehetasun gehiago
18. orrialdean.

BEINTZA-LABAIEN Inauteriak

Otsailaren 16an. Xehetasunak
27. orrialdean.

ARANO Inauteriak

Otsailaren 23an. Xehetasunak
35. orrialdean.

IGANTZI Inauteriak

Otsailaren 22an eta 23an.
Xehetasunak 17. orrialdean.

SENPERE Inauteriak

Otsailaren 23an. Xehetasunak
44. orrialdean.
Otsailaren 15ean ikastetxeen
inauteriak.

OSPAKIZUNAK

ESKUALDEA Arkupeak elkarteko bazkideen herrietako bestak

Otsailaren 10ean Iturenen.
Otsailaren 14an Leitzañ,
Donezteben eta Beran.
Otsailaren 21ean Baztangoiza
eta Xaretan. Otsailaren 24an
Sunbillan eta Ezkurran.
Xehetasunak 32. orrialdean.

Nire aukera

«Igantzín herri- eta laguntasun-giro ederra dugu»

AITOR TXOPERENA EUGI IGANTZIKO GAZTEA



«Lagunekin egotea eta haiekin planak egitea» gustuko duen 19 urteko igantziar gaztea da Aitor Txoperena. Gogoko dituen plan horien artean sartuko lituzke, bertzeak bertze, «motaan ibiltzea edo besta egitea». Aukera izanez gero, ez du zalantzan jartzen: «lanak uzten didan bitartean bestaz gozaten dut». Inauteriak, erraterako, «besta giroan, herriko adin guztietako jendearekin, bi egun eder pasatzeko» baliatzen ditu. Ortziralean «etxez etxe ibili eta afaldu» ondotik indarrak hartzeko goiz etxeratzen da. Larunbatean, berriz ere, batetik bertzera ibiltzen da eta, ortziralean ez bezala, bestan bukatzen du eguna. Baserrietako buelta ederki ikasia du igantziar gazteak, aurten «laugarren urtea» izanen baitu: «herritarrek eskuzabaltasun handiz hartzen gaituzte, batzuek mahaia beraien etxe barruan paratzen digute... eskertzekoa da beraien jarrera». Goizean hagitz zintzo ibiltzen direla nabarmendu badu ere, ez du ukatu arratsaldeko bisitetan etxeetako nagusiek «pazientzia gehiago» behar izaten dutela. Dena dela, «trikitixarekin, dantzan ibiliz eta irribarre eginez» guztiak kontent uzteko gai izaten dira. Hiru osagai horiek ez ezik, inauterietan mozarroak ere umore ona hedatzen laguntzen du Txoperenaren ustez: «guk ez dugu karrozarik egiten, ezta lan handirik hartzen ere; hondarreko momentuan erabaki eta mozarroa erosi edo etxeko gauzekin egiten dugu. Baina gaia eta prestatutako jantzia edozein izanik ere, mozarrotu eta denak batera ongi pasatzeko modua izaten dugu». Aurtengoa dagoeneko pentsatua eta prestatze-bidean dute, dena dela, otsailaren 23a arte, ez digu aurreratuko: «jakin-mina duenak gauean Igantzira agertu eta ikustea bertzerik ez du!» erran digu. Jendea animatzeko gonbidapena luzatzearekin batera, igantziar gazteak inauterietarako «eguraldi ona» eskatuko du. Herrikoak pasata, berriz, bisitak itzultzeko tenorea ailegatuko zaio: «azken orduko zerbait ez bada behintzat Arantzako eta Lesakakoetara joaten naiz». Kontuz zatotik egindako zurrutekin, biharamunak ez du barkatzen eta!

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Kanttonberri karrikan, 81 m²ko pisua salgai. Berritua dago. 3 logela, sukaldea, bainugela, egongela. Dena kanpora begira. Ilogailua ere badu. ☎ 665 98 40 11.

BERA. Kanttonberri karrikan berritu beharra dagoen 81m²ko pisua salgai. Sukaldea, egongela, 3 logela eta bainugela. Dena kanpora begira. Ilogailuarkein. ☎ 650 40 77 36.

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN. Etxe edo pisua bila. 350 euro. ☎ 680 47 27 85.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Kanttonberri karrikan, harategia errentan emateko. ☎ 687 73 69 86 / 948 63 00 18.

EROSI

ORONÓZ-MUGAIRI INGURUAN garajea erosi nahi dute. 3,5 metroko altuera eta 3 metroko zabalera izatea ezinbertzekoak. Errentan hartzeko ere interesatuak. ☎ 660 24 07 79.

ERRENTAN HARTZEKO

BERA. Garajea edo trasteleku bila. Gehienez hilean 50 euro ordaintzeko prest. ☎ 680 94 61 49.

LURRAK/ORUBEAK

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN. Ardi borda bat bere lur eremuarekin errentan hartuko nuke Atxuela inguruan. ☎ 663 59 17 76.

LANA

ESKARIAK

Beran bizi den neska euskaldun arduratsua haurrak edo adindiak zaintzeko lan bila. Esperientziaduna. Goizez edo arratsaldean edozein orduetara moldatzen ahal dena. AGHA (TDAH) duten haurreei laguntza klaseak ematen esperientziaduna. ☎ 637 35 56 45 / 948 38 89 54.

BORTZIRIAK. 50 urteko emakume euskaldun batek haurrak edo adinekoak zainduko litzuke. ☎ 650 40 79 78.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

IGANTZI. Emakume bat adinekoak zaintzen, zerbitzari, sukaldari laguntaila edo dendetan laguntzaile lanean aritzeko prest. ☎ 677 76 92 77 (deitu edozein ordutan).

BERA-LESAKA. Neska batek adinekoak edo haurrak zaintzen, garbiketean, manikurak egiten... lan egiten luke. ☎ 678 07 66 65.

Emakume bat adinekoak edo haurrak zaintzen edo garbiketean aritzeko lan bila. Hiru alorretan esperientzia duena. ☎ 644 96 38 20.

BAZTANen bizi den 40 urteko emakumea lan bila. Hezkuntzan aritua, ingeles maila altua eta ostalaritza eta sukaldaritza naturalean aritua. Base-riko lanetan ere aritzeko prest. ☎ 679 92 83 31 / 948 45 32 28.

BORTZIRIAK. Administrazio lanak egiteko lan bila. ☎ 677 60 62 92.

ESKAINTZAK

BORTZIRIAK. Aholkulari bulego batean aritzeko pertsona bat behar dute. Laboralaren arloan aditua. Interesatuak idatzi helbide honetara: *lanes.keintza31@gmail.com*.

IRUN. Autoak garbitu, saltzeko prestatu eta mekanika pixka bat dakien langile bat behar dute. Kontratu finkoa eskaintzen da. Interesatuak idatzi: *ion@munozarena.com*.

IBARDIN. Gasolindegian aritzeko langilea behar dute. Idatzi *imerida@hotmail.com* helbidera edo deitu. ☎ 638 02 53 48.

ELIZONDO. Fisioterapeuta behar du AFINAK. ☎ 948 13 53 33.

LESAKA. Koxkonta jatetxean esperientzia duen sukaldaria behar dute lanaldi osoan aritzeko. ☎ 608 75 72 27.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,23
- 1.koa 4,10
- 2.koa 3,96

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,34
- 1.koa 4,20
- 2.koa 4,06

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun inguruokoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 235,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,80
- 8-10 kilokoak: 5,00/5,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 49 €

Zerri gizona 1,048 €

Zerramak 0,430€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (ilbeltzaren 18tik 25era bitarteko prezioak)

IBARDIN. Egunero lan egiteko frantsesa dakien langile bat behar dute, saltzaile eta kutxazain bezala aritzeko. Interesatuak bidali curriculuma helbide honetara: *beolaetxea@gmail.com*.

DONEZTEBE. Auto tailer batean mekanikari lanak egiteko langilea behar dute. ☎ 948 45 03 33.

LESAKA. Enpresa batek elektrizitate eta mekanika dakien langile bat behar du. ☎ 948 62 53 95 (gozetan deitu).

BERA. Esperientzia duen estetizista behar dute. ☎ 948 630760

BERA. Asteburuetan eta udan haurrak zaintzeko eskualdeko norbait behar dute. Arduratsua, gaztea eta euskalduna dena. ☎ 677 35 72 56.

Esperientzia duen **administraria** behar dute egun erdiz lanean aritzeko. Interesatuak idatzi: *beolaetxea@gmail.com*.

MIARRITZE. Garbiketa enpresa batean garbiketean aritzeko jendea behar dute. Frantsesez ulertzen dutenak. Astean 35 ordu lan egiteko, 03:00etatik 13:30era, asteburuak barne. Gidabaimena eta autoa izatea beharrezkoak dira, baina lanerako autoa enpresak utziko du. Ordua 10,02 euro ordainduko dute. ☎ 0033 685 53 21 90.

BERA. Frantses pixka bat dakien mutila behar dute sei hilabetez Larungo benta batean zerbitzari bezala aritzeko. ☎ 607 56 60 22.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

BERA. Ikasleei irakasgaietan dituzten arazoak edo ez-ulertzeak argitzen laguntzeko prest. Irakasle-ikasketak egiten eta karrerako 4. urtean. Lehen Hezkuntza eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzako. ☎ 626 64 59 99.

MOTORRAK

SALGAI

Hyundai Tucson 5p 1.6 131 CV 4X2 Klass Nav salgai. Gasolina. 2016koa. 5 urteko garantia (2021 arte). 17.500 km inguru. Nabigatzailea, Bluetooth, Wifi, ukipen-pantaila, atzerakako kamara... Azterketa guztiak tailer ofizialean. ☎ 676 44 15 80 (Aritz) Deitu arratsaldean.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Escalare arrazako **arrain tropikalak** opari emateko. ☎ 637 06 00 73.



Bi hilabete dituen **euskal artzain txakur emea** oparitzeko. ☎ 620 13 57 21 / 696 12 76 01.



SALGAI
3 urteko behia bere umearekin salgai. Txekorrik gabe hartzeko aukera ere bada. ☎ 660 25 18 84.

KATEA BIKE **2. eskuko bizikletak**

FOCUS RAVEN 1800€

CANNONDALE SCALPEL 1200€

CUBE REACTION 1100€

Kanttonberri, 1 | BERA
 T. 948 631 218
 joxemi@kateabike.com
 www.kateabike.com

BERAKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzordearen akordioa -HIRIGINTZA-

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2018ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, 10. Poligonoko 58. partzelako Xehetasun Azterlana (2. partzela, SK2 Sektorea, UE10, Kaxerna Karrika) onetsi zuen hasiera batez.

Espedientea jendaurrean izanen da hogege lanegunez, dagokion iragarkia N.A.O.n argitaratu ematen denetik.

Bera, 2019ko urtarrilaren 16an Alkatea, Josu Iratzoki Agirre

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatu/>
 Informazio gehiagorako idatzi info@ttipi.eus helbidera edo deitu 948 63 54 58 telefonora.

ZUK

ttipi-ttapa

Zuk TTIPI-TTAPARI 50€ ematen badizkizu

..eta zure ekarpenekin zer egingen du Ttipi-Ttapa Fundazioak?

- TTIPI-TTAPA aldizkaria argitaratu eta zure etxera eraman
- ERRAN.EUS eta sare sozialen bitartez egunero informazioa zabaldu
- Euskara eta euskal kultura sustatu

eta guztia.
EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

MECNAK zuri 40€ bueltatuko dizkizu

40 euro berreskuratuko dituzu 2019ko errenta aitortzean

ONURA FISKALA PARTIKULARRENTZAT

Egindako donazioaren %80a itzuliko zaizu errenta aitortzean lehen 150€tan, eta %40a kopuru haundiagoetan.

LAGUNDU **AURREZTU**

Bagoaz,
 baguzi,
 bagazi
ttipi-ttapa
haziz!

Informazioa lortu nahi baduzue deitu
948 635 458 telefono zenbakira
 edo gurekin harremanetan jarri
bagoaz@ttipi.eus
 posta elektronikoan

ZERBITZUAK

HERIOTZAK

- **Felix Lastra**, Sarakoa, urtarrilaren 12an, 84 urte zituela.
- **Martine Errandonea**, Sarakoa, urtarrilaren 14an, 88 urte zituela.
- **Jean Mitxelena**, Sarakoa, urtarrilaren 15ean, 67 urte zituela.
- **Martina Irazoki Arrieta**, Elizondokoa, urtarrilaren 17an, 86 urte zituela.
- **Dolores Zestau Polo**, Elizondokoa, urtarrilaren 18an, 92 urte zituela.
- **Maria Mariezkurrena Telletxea**, Leitzakoa, urtarrilaren 18an.
- **M^a Teresa Sanz Asparren**, Berakoa, urtarrilaren 19an, 89 urte zituela.
- **Antonio Rodriguez Duran**, Goizuetakoa, urtarrilaren 20an, 86 urte zituela.
- **M^a Juana Ofizialdegi Iriarte**, Etxalarkoa, urtarrilaren 21ean, 83 urte zituela.
- **M^a Jesus Diaz Bidaur**, Berakoa, urtarrilaren 22an, 83 urte zituela.
- **Benita Lazkano Ubiria**, Lesakakoa, urtarrilaren 25ean.
- **Andres Bikondo Urrutia**, Arizkungoa, urtarrilaren 27an, 87 urte zituela.
- **Maritxu Urroz Ariztegi**, Berakoa, urtarrilaren 28an, 93 urte zituela.
- **Eulalia Manterola Carasatorre**, Doneztebekoa, urtarrilaren 28an, 85 urte zituela.

EZKONTZAK

- **Marcelino Mugika Goia** eta **Vani Costa Araujo**, Lesakakoa eta Brasilgoa, urtarrilaren 12an Lesakan.

ESKELAK eta HILBERRIAK

eguneratuak
erran.eus
webgunean



URTEURRENA

Juanito ZOZAIA GOÑI

Urrozen, 2017ko otsailaren 10ean,
78 urte zituela

II. urteurrena

Bihorren irrintzi hotsa
Ardien joalia...
Animaliek alaitzen dute
zure baserri maitia,
baina zu gabe, ezinezko da
'kantu' bera izatia.



ZURE FAMILIA



IZARRA
HEMEN, ZURE OHIDIAN
ADU, A TU LADO

BEILATOKIAK

ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN

Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortzirietan eta Malerrekan

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU
365 EGUN

948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE

tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

SORTZEAK

- **Ibai Telletxea Urroz**, Doneztebekoa, abenduaren 31n.
- **Anastasia Maria Alb**, Doneztebekoa, urtarrilaren 21ean.
- **Julen Torres Lujanbio**, Arantzakoa, urtarrilaren 22an.

KONTATU KONTUAK

ERRESPETUZ BIZI

GAUR eta betil!

Harreman aniztasuna
 Kontrol eta zelorik EZZZZ!!!
 Bakoitzak bere erabakia hartu eta bertzeena errespetatu.
 Arduraz jokatu eta GOZATUUU!!

Bortzirietako GIZARTE ZERBITZUEN Markomunitatea

Inauterietan ere errespetuzko harremanak! Inauteriak bestarako egun haundiak direla kontuan hartuta, «pasatu gabe ongi pasatzeko» deia egin dute Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik. «Inauteriak errespetuzko harremanetan, elkar ulertze eta onartzean eta aniztasunean pasatu ahal izateko arduraz jokatzeko» eskatu dute. «Kontsumoa parrandarako osagaietako bat izan daiteke edo ez», oinarri dute, «norberak erabaki behar du zer, nola eta norekin nahi duen». Adin ttikikoeak kontsumoa «legez galarazia» dutela eta «ongizaterako ez zaiela komeni» ere azpimarratu dute. Horrekin batera, ezetz erratea «aukera zilegia eta errespetatu beharrekoa» dela nabarmendu dute eta «baietza erranez gero, kontsumo arduratsua» egiteko ohartarazi dute. Parrandak «bertzelako osagaiak» badituela ere adierazi nahi izan dute: «lagunekin egotea, mozorrotzea, ligatzea, dantzatzea...».

URTEBETETZEAK




Doneztebeko **Irati Agirre Huarlek** 7 urte bete ditu otsailaren 27an. Segi beti bezain alai eta zoragarri! Muxu bat etxekoan partetik! Primeran pasa!



Elizondoko **Alaia Arteta Mikelperizenak** otsailaren 8an 2 urte bete ditu. zorionak eta muxu aunitz familia guztiaren partetik.



Urte askoz, **Kattalin!** Oso egun ona pasa eta muxu haundi bat etxekoan partetik.



Oihan Lujanbio Sanchezek 13 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Zorionak amatxi **Inaxi!** 103 urte bete ditu ilbeltzaren 29an. Hagitz ongi ospatu dugu!! Zorionak eta muxu haundi bat zure etxeko familia guztiaren partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta edo **Bulegoan eta postaz.** Etor zaitez ТТИPI-ТТАРЕН бугелора edo bidali argazkia eta testua: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

BAZTAN | BIDASOA | MENDIALDEA | XARETA

ASIALDIA eta GASTRONOMIA

INFO 2019

ASTE SANTUAN argitaratuko da

- Jatetxeak • Hotelak • Dendak • Taxiak
- Asialdiko enpresak • Kanpinak • Tabernak
- Aterpeak • Museoak • Lezeak • Turismoa...

• 8.000 ale
 3 hizkuntzetan • Info-praktikoak
 • Eskuko formatoa
 • Banaketa: Turismo bulegoetan

12. edizioa



Sartu nahi?

Informa zaitez: 943 63 54 58 edo publi@ttipi.eus

PLAZAN BAZAN



HAN ETA HEMEN

Egilea: Garbine Ubeda (Aiuurri)

Begiratu ongi
bi irudi havei.
Badira
zortzi gauza
bi eszenetan
ageri direnak.
Ikusten al
dituzu?



- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak




PAREAK BAI!

Hau da eskularru pila! Politak eta koloretsuak dira, ezta? Baina batek pareak falta du. Zein da?



SOSLAIA

Zein da zomorro itsusi honen silueta zuzena?



Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

726

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

- Baztan Abentura Park - 2 tiket
Idoia Saralegi Alkoz | LEITZA
- Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
M^o Isabel Oteiza Amigorena | BEINTZA-LABAIEN
- Donostiako akuariuma - 2 sarrera
Fermin Arizaleta Dainziart | AZPILKUETA
- Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Maribi Inza Andueza | LESAKA
- Buatxabal - Kamiseta bat
Virginia Urrutia Aizega | DONEZTEBE
- Martiko - Lote bat
Josune Iturzaeta Barno | ARIZKUN
- Ibaizabal - Liburu bat
Lupe Ezeiza Larruskain | ELIZONDO
- Ibaizabal - Liburu bat
Maddalen Garbisu Irazoki | BERA
- Ibaizabal - Liburu bat
M^o Jesus Almandoz Larregi | ARRASATE

Lote bat



MARTIKO
www.martiko.com

Eguzkilore bat




OKILLE TAILERRA
www.okilletailerraesp.blogspot.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

ARKUPE

www.arkupezozotegia.com



Lote bat

LIBURUAK



Marimatrakak.
Gu gara Marimatrakak
Marimatrakak. Gerra
zikinkerari!

elkar
www.elkar.eus

LA GUNTZAI LEAK



www.txalaparta.eus



www.navarraaventura.com